

# ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko urtarrilaren 29a > Astelehenena > III. urtea > 131. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Bizi izateko ez ezik, herriak garatzeko tresna ere bada ura"

**Josu Sanz**  
Unesco Etxeko  
Ingurumen Saileko  
arduraduna > 09



**G2a** Amaia Cid aktorearen debut profesionala > 23

**AGERRALDIA BILBON**  
Ibarretxeren aldeko agerraldira doaz EAJ, EA, Aralar eta EB > 04

**ARRASATE**  
Garibai kalea berriro zabalduko dute gaur, astelehena > 10

**ARETXABALETA**  
Datozen egunotan asfaltatuko dute erdialdeko bidegorri zatia > 13

ASTEKO GAIA > UME ETORKINAK INTEGRATZEN

## Ibarrean, 110 ume etorkin doaz euskara eskoletara

**JOLASEN BIDEZ**

Errefortzu eskoletan euskara indartzeko ekintzak egiten dituzte etorkinek modu ludikoan

**HEZKUNTZA** Ibarreko

ikastetxeetan 260 haur etorkin daude; bost herritan ematen dituzte euskara errefortzuak > 02-03

ELURRA > AISIALDIA

## Elurraren alde ludikoaz gozaten asteburuan

Debagoiendar asko inguruko mendietara eta gainetara igo dira aste bukaeran elurretan jolas egitera eta baita eskia-tzera ere. Horrek zirkulazio arazoak ere eragin ditu, gidari askok gaizki aparkatu dutelako mendi-bideetan.

Negu beteko astea ondo bukatzeko modua izan da hori, izan ere, giroa hasi da dagoeneko epeltzen, eta horretan jarraituko du datozen egunotan. Hala ere, gaur, astelehena, izotza bota dezake. > 04

FAMILIA > DIRULAGUNTZAK

## Laguntzak eskatzeko aukera dute gurasoek

Eusko Jaurlaritzak onartu ditu aurten umeak edukitze-agatik emango dituen dirulaguntzen baldintzak eta kopuruak, eta aurten umea izan dutenek, adibidez, hiru hilabeteko epea dute laguntza horiek eskatzeko.

Gainera, aurten berritasuna dakar dekretu horrek, izan ere, lehenengo aldiz, estatus berezia dute nazioarteko adopzioek, eta dirulaguntza bereziak jasoko dituzte guraso horiek. > 05



LEHIA Mondrako jokalaria Keixi eta UDAko jokalaria Haritz, baloia menderatzeko lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

KIROLA > PREFERENTE MAILAKO DERBIA IBARRA FUTBOL ZELAIAN

## Berdinketarekin amaitu zen UDaren eta Mondraren arteko lehia

Igor Arriaga (UDA) eta Jon Murua (Mondra) izan ziren golegileak > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Bertatik bertara > 07

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-21

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-telebista > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

## Barruan, BTLS futbol taldearen posterra



OÑATI > AITA MADINA

## Aita Madinaren jaiotetxean plaka ipini zuten domekan

Gaurko egunean, orain dela 100 urte, jaio zen Aita Madina, Debagoieneko musikari unibertsale-tako bat, Oñatiko Zubillaga auzoko Txipitxalle baserrian. Urteurren borobil hori gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Oñatiko Udalak, eta atzo, domeka, egin zuten horietako bat, haren jaiotetxean plaka bat ipin-

tzea, hain zuzen ere. Udal ordezkari eta herritar askoren aurrean erakutsi zuten plaka. Horrez gain, arratsaldean, Aita Madinaren piezen kontzertua izan zen.

Oñatin ez ezik, Debagoienetik kanpo ere gogoratuko dute konposatzaile hori; hain zuzen, Azpeitian, Errenterian eta Donostian. > 19



Plaka erakusten.

JOSETXO ARANTZABAL

# Herrien aniztasunean euskararen oztopoak gainditu nahi direnean

**IKASLEEN IA %3** EAEn 15.767 ikasle etorkin daude, ikasle guztien %5a. Debagoienean 260 (% 2,93) dira etorkinak

**BOST HERRI** Mankomunitateak bideratuta, ibarrean Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin ematen dira errefortzu eskolak

**ERREFORTZUAK** Euskara indartzeko, modu ludikoan eskola orduetatik kanpo egiten diren ekintzak dira euskara errefortzuak

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Inmigrazioa indartzen ari den neurrian, gora egin du baita ere gurean, eskoletan, ikasten hasten diren etorkinen seme-alaben kopuruak.

Ondorioz, ume eta gazte horien integrazioa erronka bilakatu da hezkuntza sistemarendako. Izan ere, hainbat jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdinetatik datoz gurera neska-mutikoak. Etorkinen artean, latinoamerikarrak dira nagusi; ondoren, marokoarrak, Europako Batasunekoak gero, eta azkenik, Europa erdi eta ekialdekoak, afrikarrak eta asiarrak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko datuen arabera, EAEn 15.767 ikasle etorkin daude, ikasle guztien %5a. Horietatik 3.724 ikasle (%3,74) Gipuzkoan daude, eta gurean, Debagoienean, 260 (%2,93) dira etorkinak.

**HEZKUNTZA SAILETIK LAGUNTZAK**

Ikasle etorkinak hemengo hezkuntza sistemara egokitu behar dira, eta integrazioa egokia izan

**"Euskara ikas dezaten laguntza ematen diegu, baina era berean nahi dugu etorkinak herrian integratzea"**

**"Txikienen gurasoek interes handia azaltzen dute umeei ikasteko, eta ikasleek erraztasuna eta gogoia daukate"**

dadin, komeni da sistema bera ere ikasle berrietara moldatzea. Beraz, atzerritik datozen ikasleei ikastetxera moldatzeko erraztasunak eman asmoz, Eusko Jaurlaritzak Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa abiarazi zuen.

Etorkinen harrera plana, berez, ikastetxe bakoitzak moldatzen du, baina etorri berriendako hizkuntza indartzeko programa daukate gertatuta.

Programa horri esker, euskara ikasteko errefortzuak eskaintzen zaizkie ikastetxeei. Gurean, irakasle bat dago San Martin ikastetxean, eta beste bat, dedikazio erdiarekin, Antzuolan. DBHn, Arrasaten eta Bergarako Ipintzan, irakasle bat daukate partekatuta zeregin horretarako. Bestalde, Bergarako Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastetxeei eta Arizmendiko gune bati ere dirulaguntzak eman dizkie Eusko Jaurlaritzak errefortzu jardunetarako.

Ikastetxeetako lanaz gain, gurean, etorkinendako euskara errefortzuak eskaintzen ditu Man-

komunitateak eskola orduetatik kanpo. Udalek, batzuetan, euskara eta kultura elkarteetara bideratu dituzte errefortzuak, eta euskaltegietara, beste batzuetan.

**ESKOLATIK KANPO EUSKARAZ**

Euskara errefortzuen kontua orain dela lau urte inguru jarri zen abian ibarrean eta, gaur egun, bost herritan egiten da eskaintza: Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, eta Eskoriatzan hasi berriak dira. "Eskoletatik laguntza eskaera egin zuten Udaletako euskara sailetara. Izan ere, etorkin asko ari ziren iristen eskolara eta, askotan, ez zekiten nola aurre egin kontu berri horri. Beraz, proiektu bat gertatu zuten", esan digu proiektu honetako koordinatzaile Idoia Hermosa eibartarrak.

"Euskara errefortzuak dira euskara indartzeko eskola orduetatik kanpoko ekintzak, baina modu ludikoan. Horrela, umeei ikusten dute euskara eskolatik kanpo ere erabil dezaketela", azaldu digu Idoiak.

Eskulanak, tailerrak, jolasak... egiten dituzte haur eta gaztetxoekin, batik bat hasieran; gai zehatzak hartu eta hiztegia lantzeko ariketak ere egiten dituzte. "5 eta 9 urte bitarteko umeei, batik bat, oso erraz hartzen dituzte hizkuntzaren oinarriak, baina hortik aurrerakoendako, zailagoa da. Eskoletan, eta baita gu geu ere, konturatu gara iristen dela momentu bat entzumena nahiko garatuta daukatena eta oinarriak ikasiak dituztena, baina behar dutena eskolan ikasgaia gainditzea da, eta horretarako maila nahikorik ez dute ematen. Beraz, iaz hasi ginen alde ludiko hori gainditu eta gramatika ere barnerraten eskola errefortzuetan, baina hasi berriak gara horrekin, eta egiteko asko daukagu", esan digu Idoia Hermosak.

Hasieran, euskara batuan berba egiten dute irakasleek umeei, baina, ikasleek maila hartzen dutenean, saiatzen dira tokian tokiko hitzak eta hizketa modua erabiltzen. Idoia Hermosaren esanetan, "euskalkia ikasteak badu



Rosemary Elisabeth eta Rafael  
Peru eta Ekuadorreko ikasleak

Rosemary orain dela pare bat hilabete etorri zen Bergarara. Euskara errefortzuetara "euskara ikastera" joaten dela esan digu. Rafaelak bi urte inguru daramatza eta ondo moldatzen da euskaraz. "Ulertzeko" joaten da, bere esanetan, euskara errefortzuetara. Rosemary-k esan digunez, "pixkanaka ikasten ari naiz marrazki, kantu eta jolasekin". Rafaelak "ikastetxean, gehiena euskaraz" egiten duela esan digu.



Candido Sanchez  
Gurasoa

Semeak Marokon bizi izan ziren, eta han, arabiera eta frantsesa ikasi zituzten eskolan; beraz, "hona etorrita, eta hemen bizi badira, euskara ikastea beharrezkoa dutela uste dut nik, eta nik ere gustuko dut. Orain arabieraz hitz egiten dute, gaztelaniaz ere eta euskarari ere tamaina hartzen ari diotela dirudi, baina eskolatik eta errefortzuetatik kanpo ez dute euskaraz asko egiten lagunek ere ez dutelako egiten".



Olatz Martinez de Zuazo  
Irakaslea

Abenduan hasi ziren bi talderekin. "Handiekin baino samurrago moldatzen gara txikiekin. Orain arte, koloreak, zenbakiak, hizkiak... landu ditugu, eta ez dugu arazorik izan. Handien euren interesekoak diren gaiak aurkitzea eta motibatzea zailagoa da. Eurengeatik balitz, beti jolasean edo eskulanak egiten ibiliko ginatke, baina erakutsi behar diegu euskara lantzeko lana egiten behar dela".



JOLASAK ETA ESKULANAK Rafaelék eta Rosemaryk Maite eta Amaia irakasleekin marrazkiak egiten; modu ludikoan euskara ikastea da errefortzu eskolen helburua.

IRATI AGIRREAZALDEGI

bere garrantzia, kalean apenas entzungo dutelako euskara batua, eta ulertzeko hobeto moldatuko dira bertakoa baldin badakite".

#### HIRU MAILA

Proiektuaren baitan, etorkinak adinaren arabera mailakatzan dituzte: 5 eta 9 urte bitarteko umeak; 10 eta 12 urte bitartekoak; eta DBHkoak ere hasi dira. "Bergaran, bigarren urtea da; Oñatin, orain arte euskara errefortzuetan ibili eta DBHra pasa direnak gaztelekuan herriko umeekin ibiltzen dira, horrela, integrazioa ere lantzeko".

Proiektuaren arabera, etorkinek bi urtetan jasotzen dituzte euskara errefortzuak eta, horren ostean, ahalegina egiten da herriko aisialdi taldeetara pasatzeko: dantza, kirola, musika... "Euskara ikas dezaten laguntza ematen diegu, baina, era berean, nahi dugu herrian integratzea. Aurten landu nahi ditugu integrazio hori bideratzeko moduak. Proiektua bera nahiko berria da, eta pixkanaka garatzen ari gara. Behin errefortzu eskolak uzten dituztenean, ez diegu umei jarraipenik egiten, baina baliteke aurrerago horren beharra ere azaltzea", azaldu digu Idoiak. "Nik izan dut ikas-

le bat oso argia, euskaraz ondo ikasi duena, baita euskalkia ere. Orain dantza taldean, abesbatzan... dabil, eta erabat integratuta dago gurean. Gurasoen eraginak ere zeresan handia du. Batzuek sekulako gogoaz azaltzen dute umeek ikas dezaten; beste batzuek, bat ere ez".

#### INTERESA, FAMILIEN ARABERA

Euskara errefortzuetarako umeek eta gurasoek azaltzen duten interesa bakoitzaren arabera dela esan digu Idoia Hermosak. Irakasle moduan jardun izan du

orain arte, eta denetarik ikusi du: "Txikienekin, oso ondo moldatzen gara gehienetan. Gurasoek interes handia azaltzen dute umeek ikasteko; eta ikasleak eurak txikiak izanik, erraztasuna daukate, baita gogoaz ere. Irakurketa eta idazketa prozesua euskaraz ikasiz gero, arazo gutxi egoten da txikiarekin". Nagusiagoen kasuan, euskara ikasteko beharrari etorkinen egoera gehitu behar zaiola esan digu Idoia Hermosak: "Iritsi berriak dira, integrazioa arazoak daukate, familia bakoitzaren kasua ere ikusi behar da..."

Nagusienek, eskolan ordu mordo eman ostean, ez dute gogo askorik izaten euskara ikasteko".

"Zailena ikasleengana heltzea da; hori lortuz gero, pausorik garrantzitsuena emana dago. Bestalde, tabuak apurtu behar dira. Sarritan entzuten diegu etorkinei, "zergatik ikasiko dut euskara, gaztelania nahikoa badut hemen ibiltzeko?". Erakutsi behar diegu hori ez dela horrela".

Hizkuntza eta jolasa bat egirik, euskara etorkinengana hurbiltzen da, eta eurak euskarara gerturatzen dira.

## di-da batean

Irati Agirreazaldegia

### Hizkuntza ez da traba ikasten bada

Txina, Peru, Ekuador zein Maroko, urrutirago ez dut joko. Baina mapari so eginez egingo nuke mila hitz joko. Jokotik jolasa, hitzari emanaz arnasa, euskararen bidetik mugarik aurkitu gabe nahi dute pasa. Askok uste duen arren: "Kanpotarra izanik ba ote da kapaza?" Kapaz ala gai, hala dute nahi, gogoaz bihurtuz nahi, gaztelania, arabiera, txinera eta euskara ere bai. Batzen dituen euskara eta niri gure hizkuntzan entzunik irribarra ezpainetara. Umeen begi txikiak edo azalaren kolorea bereizgarri dira, baina ez garrantzitsu, ordea. Niretzat eurak euskaldun izatea zelako ohorea.

## Ikasle etorkinak Debagoiengan

HERRIA	HEZKUNTZA ARAUTUA			ERREFORTZUAK	
	IKASLE ETORKINAK	IKASLEAK GUZTIRA	%	IKASLE ETORKINAK	IRAKASLEAK
ANTZUOLA	8	174	4,6	--	--
ARETXABAETA	14	481	2,5	9	1
ARRASATE	87	2.913	3	31	2*
BERGARA	108	2.474	4,3	50	2*
ELGETA	4	74	5,4	--	--
ESKORIATZA	8	959	0,8	1	1*
OÑATI	30	1.737	1,7	19	2
ARAMAIO	1	122	0,82	--	--
<b>GUZTIRA</b>	<b>260</b>	<b>8.934</b>	<b>2,91</b>	<b>110</b>	<b>8</b>

\*Bergaran, praktiketako irakasle batek ere badihardu; Arrasaten, ohiko irakasleei beste bik laguntzen diete; eta Eskoriatzan euskaltegiko irakasle batek ematen dizkio errefortzu eskolak ikasle bakarrari.

ELURRA &gt; DEBAGOIENDARRAK MENDIRA IGO DIRA

# Elurraz gozatzeko aprobetxatu dute aste bukaera debagoiendar askok

Udala, Gorla, Aloña edo Mendiola bezalako gainak aukeratu zituzten ume eta aita-ama askok elurretan gustura jolas egiteko

Familia asko autoz igo zirenez Gorrara, bidea oztopatuta geratu zen eta Ertzaintzak bidea ordubetez itxi eta isun asko ipini zituen

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Eguraldi txar bolada nabarmen baretuta, debagoiendarrek elurraren alde jostagarriaz gozatzeko aprobetxatu dute joan den aste bukaera. Umeak eta gazte-txoak, gurasoekin batera, barra-barra igo dira eskualdeko mendi eta leku altuetara elurretan jolas egiteko. Eta ondo aseta geratzeko moduan zeuden, izan ere, kaleak dagoeneko garbi-garbi dauden arren, mendietan elur geruza lodi-lodia dago oraindik.

Alboko argazkiak dira horren frog. Arrasateko Udalan, Berga-

rako Gorlan eta Aretxabaletako Mendiolan ateratako argazkiak dira. Eskiatzera ere lagun dezentete igo dira, urrutira joan barik; hala, Aloñako gaina eskizalez beteta zegoen zapatuan, eta Debarreneko lagun koadrilak ere hantxe ibili ziren gustura.

ARAZO HANDIA GORLAN

Mendietara igo diren hainbat, ordea, umore ona zapuztuta geratu ziren, gaizki aparkatzearen isun asko ipini ditu eta aste bukeran Ertzaintzak. Arazo larrienak Gorlan izan ziren. Han, askok

autoa gaizki aparkatuta utzi zuten, bidea elurra kentzeko makinendako eta Elosuko bizilagunendako itxiz. Ertzaintzak esan digunez, "hainbat bizilagunek deitu egin zuten, kexatuz", eta Ertzaintzak isunak ipini eta puntuak galduko zituztela jakinarazi zien hainbat gidariri. Auto pilaketa hain handia zenez, ertzainek bidea itxi egin behar izan zuten atzo ordubetez, zirkulazioa antolatzen. Ertzaintzak ez du esan zenbat isun ipini dituen, baina lekukoek diote 15 gutxienez izan direla, eta isunak handiak izan direla. Ertzaintzak baieztatu du, ordea, EAeko bigarren mailako gainalde guztietan arazo berbera egon dela.

EPELTZEN

Datozen egunotan, temperaturak gorako joera izango du. Edozelan ere, gaur, astelehena, izotza bota dezake oraindik; hortaz, errepidean arreta bereziarekin ibili behar da.



IBAR OSOAN Udalan, Gorlan eta Mendiolan jolasean. J. ARANTZABAL / E. AZKARATE / M. ALTBUE

## Istrupu zaratatsua, baina zauritu barik

Zorionez, izotzak ez du istripu larrikeragin. Hala ere, zapatuan, 05:25ean gertatu zen bat, Ibargarai kaletik Bergarako irteerarantz zihoan Ford Transit batek biribila gurutzatu eta farola baten, ureztaketa-hartune baten, edukiontzi baten eta han egiten ari diren obretako etxola baten aurka jo zuen. Behar baino abiada handiagotan zihoan gidaria, Ertzaintzak dioenez, eta izotza beste faktore bat izan zen, baina odolean onartutako baino alkohol tasa altuagoa zuen gidariak; horregatik, atxilotu egin zuten.



Oraindik ikus daitezke istripuaren ondorioak.

JOSETXO ARANTZABAL

MANIFESTAZIOA &gt; BILBON 'EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE'

## Ibarretxeri elkartasuna azaldu eta auzia artxibatze eskatuko dute Bilbon

EAJk, Eak, EB-Berdeek eta Aralarrek dei egin dute "oinarrizko printzipio demokratikoen" alde gaur, astelehena, egingo duten manifestaziora joateko

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren aurkako auzia artxibatze eskatuz, manifestazioa deitu dute EAJk, Eak EB-Berdeek eta Aralarrek. Gaur, astelehena, Bilbon izango da manifestazioa, 19:30ean Moiu plaza abiatuta.

Lehendakariak Batasunarekin batzartu izanagatik azalpenak eman behar ditu eguaztengan EAeko Auzitegi Nagusian; aurrez, bihar, martitzena, Batasunako Arnaldo Otegi, Fernando Barrena eta Juan Joxe Petrikoren deklaratu beharko dute.

Besteak beste, Ibarretxeri babesa emateko xedea du gaur iluntzeko manifestazioak. "Auzi honekin, Ibarretxek ekimen politikoa zuzentzeko duen erakundeardura baliorik gabe utzi nahi dute", esan dute manifestaziorako deia egin duten alderdiek.

LEHENDAKARIARI ELKARTASUNA

*Euskal erakundeen alde* izango da manifestazioaren leloa, eta "justiziaren politizazioa" salatu eta "politika askatasunean gauzatu ahal izatea" aldarrikatuko dute bertaraten direnek.

"Bilboko kaleetan, denok batera, lehendakariari gure elkartasuna adieraziko diegu eta, era berean, demokraziarekin, elkarrizketarekin, askatasunarekin, zuzenbide estatuko printzipioekin eta jardunbide politikoarekin dugun konpromisoa azalduko dugu", dio lau alderdien izenean kaleratutako idatziak.

"Ibarretxe kriminalizatu dute herritarrok erakundeagindutako ardura politikoa betetzen saiatu delako", esan dute. "Konponbide demokratikoak sustatzeko ekintzak ez dira legez kanpoak eta are gutxiago delituak".

AUTOBUSAK BILBORAKO

Ibarreko lau alderdiotako ordezkariak egin dute manifestaziorako deiarekin, eta ahal duten herritarrei Bilbora joan daitezkeen gonbitea egin diete.

Debagoieneko hainbat herritan, gainera, EAJko autobusak antolatu dituzte manifestaziora joateko. Bergaran, geltokitik abiatuko da autobusa 18:00etan; Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatekoak batera joango dira, eta 17:30ean Eskoriatzan abiatuta, gainontzeko herrietan jasoko ditu bidaiariak. Arrasatekoek Abaroa pareko geltokira joan beharko dute; Oñatitik, autobusa 17:00etan irtengo da geltokitik.

EAJk eta Eak kudeatzen duten Udalbiltzak bat egin du manifestazioarekin, eta herritarrei zein hautetsiei bertara joateko eskatu die.



EKITALDIA Egueneko ekitaldian ateratako talde argazkia; tartean daude hainbat debagoiendar.

EUSKO IKASKUNTZA

OMENALDIA > EUSKO IKASKUNTZAKO GIPUZKOAKO BAZKIDEEN EGUNA

## Eusko Ikaskuntza "berpiztu" zuten bazkideei omenaldia

25 urtean bazkide izan direnek Eusko Ikaskuntza Gerra osteko geldialditik ateratzen lagundu zutela gogorarazten du Javier Retegik

L.K. > BERGARA

Gipuzkoako Bazkideen eguna ospatu zuen Eusko Ikaskuntzak joan den egunean, eta Debagoieneko 13 lagun eta erakundek 25 urtean bazkide izatearren zilarrezko intsignia jaso zuten. Gipuzkoako presidentea ere debagoiendarra da, Javier Retegi, eta

honakoa dio berak: "Gerra ondoren, 36an, geldi geratu zen Eusko Ikaskuntza. Erakundea berpiztu zuten bazkide horiek, eta 25 urteotan bizirik eutsi dute, garai onetan eta txarretan".

Ekitaldiaren harira, mezu hau bidaltzen du: "XXI. mendean gauden honetan, sorrerako,

1918ko oinarriek bete-betean balio dute oraindik. Erakundea berritzen jarraitzen dugu, eduki eta jende berri askorekin, baina oreka gordez, lehen dauden sailekin jarraituz".

DEBAGOIENEAN SORTUA

Debagoienak parte-hartze handia izan du beti Eusko Ikaskuntzan; sortu ere, Oñatin sortu zen erakundea, 1918. urtean. Horrez gain, erakundeko lehenengo Ohorezko Bazkidea debagoiendar bat izan zen, Eli Galdos oñatiarra.

MANKOMUNITATEA > BATZARRA

## Garraio Lurralde Agintaritzaz, etzi Mankomunitatean

Etzi, eguaztena, batzartuko da Mankomunitatea, Arrasateko udaletxean

2007-2011 Finantza Plana egin dute, egoitza berria egiteko mailegua eskatzeko

L.K. > BERGARA

Etzi, eguaztena, izango da Mankomunitatearen hurrengo batzarra, Arrasateko udaletxean, 18:00etan. Egun horretan eztabaidatuko duten gai nagusia Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren enpresarekin lankidetzaren hitzarmena eta estatutuak izango dira.

Asmoa da egun horretan erabakitzea enpresa horretan sartuko den edo ez; horretarako, udal bakoitzak Mankomunitateari eman behar dio baimena, eta, oraingoz, Oñatik, Aretxabaletak eta Antzuolak eztabaidatu dute gai hori, eta hirurek baimena ematea erabaki dute.

Etzi, eguaztena, ixten da epea udal bakoitzak erabaki

hori har dezan. Datozen egunotan, zenbait udalek bilkura dute deituta, eta gai horretaz erabakia hartu beharko dute Mankomunitateak bere batzarrean eztabaidatu ahal dezan.

FINANTZA PLANA

Beste gaien artean, honakoak aipa daitezke: batetik, Debagoieneko Industrialdea erakundean Mankomunitatearen ordezkaria izendatuko dute; Ingurumen sailean, Epeleko zabortegian hainbat lan lehiaketara ateratzeaz hitz egingo dute; hiltegiari dagokionez, hondakinak garraiatzeko eta haragi-azpiproduktuak kentzeko lanen esleipenaz arituko dira; horiek, beste kontu batzuen artean.

Zerbitzu Orokorren sailean sartzen diren gaien artean, 2007-2011 finantza-plana onartuko du. Plan hori egin beharra izan du Mankomunitateak, bere egoitza berriko obrak finantzatzeko mailegua eskatu behar duelako, eta horretarako, legeak finantza aurreikuspen plan bat egitera behartzen duelako. Plan horretan azaltzen da mankomunitatea ekonomikoki oso egonkorra dela, eta etorkizunean ere hala izango dela esaten dutela aurreikuspenek.



DIRULAGUNTZAK Jaioberriengatik eska daitezke laguntzak.

JOSETXO ARANTZABAL

FAMILIA > DIRULAGUNTZAK

## Umea izateagatik laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Sei urtera arteko seme-alabak dituzten guztiek Jaurlaritzaren dirulaguntzak eska ditzakete

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Seme-alabak izateagatik Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dute 2007an umeak izan dituzten debagoiendarrendako. Gainera, aurten, berritasun moduan, programa berri bat sortu dute nazioarteko adopzioendako. Aurrerantzean, adopzio horiek laguntza mota bereziak dituzte.

Gurasoek umea jaio edo adoptatu eta hiru hilabeteko epea dute laguntzak eskatzeko. Justizia, Lan eta Segurantzaren Sailari bidali behar zaio eskaera. Laguntza hori berritu behar bada, eskaera urte osoan egin daiteke.

2.000 EUROTIK AUERRERA

Orain arte, nazioarteko adopzioek Estatuan egindako adopzioen

edo erditze berean bi edo ume gehiago izatearen tratamendu bera zuten; aurrerantzean, umea edukitzeagatik jasotakoaz gain, nazioartean adoptatzeagatik ere dirulaguntza bereziak izango dira. Hala, gurasoen errenta mailaren arabera, 2.000 eta 4.000 euro arteko dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte. Dirulaguntza handiagoa izango da ume bat baino gehiago adoptatu bada.

JAIOBERRIENGATIK, 900 ARTE

Umeak izateagatik honako dirulaguntzak onartu ditu Jaurlaritzak: lehen seme-alabarengatik, errentaren arabera, 400 eta 900 euro arteko dirulaguntza jaso daiteke; bigarren umearengatik, lehenengo urtean, 1.100, eta hurrengoan, 400; hirugarren eta ondoren-

goengatik, dirulaguntza umeak 6 urte bete arte jaso ahal izango da, urtero eskaera eginda.

Dirulaguntza bereziak daude gutxitasuna duten umeen kasuan, edo erditze berean bi ume edo gehiago jaio badira.

### IRIARTE

Umeen  
denda

Helduen  
lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

Euskal Herriko Unesco Etxeko, EHuko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Arrasatera etorriko dira otsailaren 6an, *Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia* izeneko giza garapenaren gaineko 2006ko txostena aurkeztera. Unesco Etxeko Ingurumen Saileko arduradunarekin, Josu Sanzekin, egin dugu gai horretaz berba.

Josu Sanz > Unesco Etxeko Ingurumen Saileko arduraduna

# "Ura bizi izateko baliabidea da, baina baita herriak garatzeko tresna ere"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Unescoko Ingurumen saileko arduradun orain hiru aste hasi da Josu Sanz, baina dagoeneko oso jantzia dago uraren nazioarteko arazoaz, Arrasaten eztabaidatuko duten gaiaz. Bere esanetan, "arazoa ez da eskasia, kudeaketa txarra baizik".

## Ze lan egiten du Unescoko Ingurumen sailak?

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin egiten dugu lan. Gure lan-arloetako bat Urdaibai-ko biosfera da; horren gaineko jardunaldiak prestatzen ditugu. Ur Zuzendaritzarekin ere lan handia egiten dugu. Iraunkortasunean heztea da beste lan-arlo bat; besteak beste, horren gaineko Unesco Katedra dago EHUn.

## Zergatik aukeratu duzue Arrasate aurkezpen honetarako?

Txosten honen lehen aurkezpena Bilbon egin genuen, baina jendearengana hurbildu nahi genuen, eta Gipuzkoan mahai-ingurua egitea erabaki genuen. Goierna kooperatibarekin harremana du Unesco Etxeak, eta Goierna kudeatu zuen. Nik lehen Arrasaten egin nuen lan, eta banekien iraunkortasun arloan gauza asko egiten zirela: iraunkortasunerako plan estrategikoa, tokiko agenda... eta oso aukera ona iruditu zitzaidan.

## Boterea, pobrezia eta munduko ur krisia da txostenaren izenburua. Zein da horren mezua?


Ur kontuetan, herri txiro eta aberatsen desberdintasunean, ur eskasia aitzakia dela, eta arazoa politikoen kudeaketa txarra dela. Datu batzuk ematearren, New York-en, metro kubikoa dolar erdi kostatzen da, eta Filipinetan, sei bider gehiago.

## Gizartean, ze ondorio dakartzatza horrek?

Herrien artean ez ezik, herri bakoitzean ere, desberdintasun handiak eragiten ditu txiro eta aberatsen artean. Nikaraguan, adibidez, indigenen %20k bakarrik du edateko ura, baina ez-indigenen artean, %80k.

## Ze kostu dakar horrek herrien garapenerako?

Garapena galaraztea dakar. Esaterako, ur saneamenduan inbertitzen den dolar bakoitzak herri horren Barne Produktu Gordina zortzi dolar haztea dakar. Ura inbertsio bat da, eta herri horiek



Josu Saiz, Bilboko Unesco Etxeko bere bulegoan.

UNESCO ETXEA

gara daitezen nahi badugu, inbertsio hori egin behar da. Esaterako, beherakoa oso gaixotasun larria da umeendako: ia 2 milioi hiltzen ditu urtero, 5.000 bat egunero. Bizitzaren kostua oso altua izateaz gain, gaixotasunarengatik, umeak ezin dira eskolara joan. Hala, herri horiek ez dira garatzen. Hara, Londres eta New York garatzen hasi ziren ur saneamendua sarea eraiki zutenean, eta hori orain 100 urte bakarrik gertatu zen; gaur egun, Afrikako herri batzuk egoera horretan daude oraindik. Horrek erakusten du ura ez dela soilik beharrezkoa bizi izateko, baizik eta garatzeko baliabide bezala ere.

## Txostenak dioenez, sexu arteko desberdintasuna areagotu egiten du uraren arazoak.

Hala da. Izan ere, herrialde horietan, emakumeak lortu behar du ura, eta horretarako kilometro asko egin behar ditu oinez. Hau da, ura ez da jendearengana joaten, jendeak joan

## ERRENTAGARRITASUNA

**"Urean inbertitzen den dolar bakoitzak herri baten BPGa zortzi dolar haztea dakar"**

## AFRIKA

**"Londres eta New York ur sarea eraiki zutenean hasi ziren garatzen, orain 100 urte bakarrik"**

## EMAKUMEA

**"Ur krisiak sexuen arteko desberdintasuna areagotzen du, emakumeak ur bila joan behar duelako"**

behar du uraren bila, eta emakumeak egiten du hori.

## Badago arazoa bereziki larria den lekurik?

Hego Amerika hobeto dago Afrikaren aldean; izan ere, Afrikako gerra asko dago, eta, politikoki, ez da egonkorra. Nazio Batuetako erakundeak Afrikara badoaz lan egitera eta halako baten estatu kolpe bat badago, eraturako erakunde guztiak jausi egiten dira.

## Klima aldaketak ze eragin izango du?

Oso handia; izan ere, herri txiroen ekonomiaren zati handiena nekazaritzan datza, eta ekonomia asko jausi egingo dira. Aurreikuspenen arabera, 2025erako, ia 3.000 milioi pertsona estres hidrikoan egongo dira, hau da, urteko 1.700 m<sup>3</sup> ur baino gutxiago izango dute, eta 14 herrialde ur eskasia egotzen egongo dira.

Herri garatuok ez dugu arazoa ikusten: beharbada, ur tari-

fak igo egingo dira, fruta eta barazkiak garestiagoak izango dira, baina, azken baten, ez dugu aurrez aurre ikusten eskasiaren arazoa.

## Txostenak helburu edo irtenbide batzuk proposatzen ditu. Horiek aurrera eramatea nori dagokio?

Unesco PNUMA garapen programa egin du, eta 2015erako helburu batzuk ezartzen ditu: besteak beste, gaur ura ez duten erdiek, gutxienez, izatea. Horretan, Nazio Batuetako agentzia guztietako jendearekin ari da lanean Unesco.

## Herri garatuetan bizi garenon esku zer dago?

Iraunkortasunaren kulturaren gehiago sartzea. Geuk ere lagun diezaiekegu herri horiei: ikusi behar dugu zer eta zelan erosten dugun; adibidez, arropa bat edo kanpoko fruta nondik datorren pentsatu... ipar-hego desberdintasuna ez areagotzeko.

## oharrak eta deialdiak

ANTZUOLA

### > Erretiratuen elkarteak bazkide bila dabil

Antzuolako Erretiratuen Elkarteak batzordeak bazkideak lortzeko kanpaina abiarazi du. Hainbat gutun banatu ditu egunotan, elkarteak bazkide ez diren erretiratuen artean. Interes dutenek elkarteak batzordeko kideengana jo behar dute. Andoni Azkarate da presidentea gaur egun.

BERGARA

### > Korrika batzorderako dei egin dute

Hilaren 31n izango da, 19:00etan, kultura etxean. Interes duten herritar guztiei egiten diete dei batzordean parte hartzeko. Besteak beste, Korrika Txikia antolatuta eta dirua batzeko aukerak aztertuko dira

ELGETA

### > Hainbat ikastaro eman go dituzte KZgunean

*Aurkituz zure liburua* delako ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Urtarrilaren 31n izango da, euskaraz, 11:00etatik 12:00etara. Egun horretan 09:00etatik 13:00etara egongo da bulegoan arduraduna.

ELGETA

### > Santa Agedako entseguak, barikuan

Barikuan, kiroldegiko gimnasioan, 20:30ean batuko dira gaztetxeak, guraso elkarteak, abesbatza eta nahi duten

herritarrek Santa Agedako entseguak.

ESKORIATZA

### > Sahararren bizimodua hizpide

Ikastolatik Saharara proiektuaren barruan sahararren kanpalekuek izan ziren Arizmendiko ikasleak. Han bizitakoak erakutsiko dituzte diapositibekin lagunduta egunean, otsailak 1, 18:00etan, kultura etxean.

ARRASATE

### > Helduen eskolan izena emateko epea zabalik dago

Helduen eskolak matrikulak egiteko epea zabaldu du. Horretarako jo egoitzara -Ferrerias 28, B- edo 943 77 11 72 telefono zenbakira deitu. Besteak beste egongo dira: irakurtzen eta idazten hasteko eskolak, oinarriko ezaguerak sakontzeko eskolak eta atzeritarrendako gaztelera eskolak.

ANTZUOLA

### > Federatu txartelak jasotzeko daude Arrolan

Arrolako ordezkariak federatuei jakinarazi nahi diete federatu txartelak heldu direla. Hala, martitzen eta egunean pasa daitezke egoitzatik, 19:00etatik 20:00etara, txartelak eskuratzeko.

ARRASATE

### > Ahotsak plataformako ordezkarien hitzaldia atzeratuta

Aurreko astean egitekoak ziren hitzaldi hori baina elurratetik atzeratu beharra izan zuten. Hala, otsailaren 1ean, eguna, izango da, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

DEBAGOIENA

### > Presoien senideei laguntzeko errifak

Bergara, Antzuola eta Elgetako presoak bisitatzeko senideek egin behar dituzten bidaietan laguntzeko

errifa martxan da. Herriotako hainbat tabernetan eskura daitezke, 3 euroren truke. Txartel bakar horrekin hilerok hainbat sari eskuratzeko aukera dago: astelehenetik eguenera 30 euro eta barikuetan, 60 euro, ONCEko azkeneko hiru zenbakiekin bat eginez gero. Gainera, otsailaren 23an 300 euroko sari berezia egongo da.

BERGARA

### > Jardunek begirale lan poltsa osatu nahi du

Baldintzak dira euskaraz ondo jakitea eta begirale titulua izatea. Ikasketak eta esperientzia ere baloratuko dira. Interesatuok bidali curriculumak honako helbidera: Bergarako Jardun elkarteak, Errotalde jauregia z/g, 20570, edo [gaztejardun@topagunea.com](mailto:gaztejardun@topagunea.com) helbide elektronikora.

ARETXABALETAKO

### > Flamenko eta kaxoi jotze ikastaroa

Otsailaren 7an hasi eta eguazteneko izango dira eskolak, Kurtzebarri eskolan, martxo bukaerara arte. Hastapen taldea -18:30etik 19:30era- eta aurreratu -19:30etik 20:30era- egongo dira. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako jo dezakezue Aretxabaleako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker Tatoo dendara. Plaza mugatuak dira.

## etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

## Ura, noiz faltan, noiz soberan

Ura mintzagai izan da azken hilabeteotan. Bere gabeziak dardara batean jartzen gaitu. Gogoan daukat oraindik, umeak ginenean udan egoten ziren ur-mozketak. Zorionekoak etxean bainera zutenak, garbitzeko ura jasotzeko biltegi txiki bat izaten zutelako. Ur faltara orain baino ohituagoak geunden. Ur gabeziarik ez da sekula izan herri honetan, baina etxera eramateko azpiegituren kostuek eragin handia zuten zerbitzuaren kalitatean.

Ura, herri eta pertsona aberats eta pobreen arteko hesi gaindiezin bihurtu da. Aste honetan ospatu diren munduko bi foroak ere, horren adierazle dira. Ekonomikoa Davos-en, elurrez eta oparotasunez inguraturik. Gizartekoa Nairobin, lehor-teak jota, txirotasuna ikur.

Bi herrialde hauen arteko desberdintasuna datu hauetan islatzen da. Suitzako bizitza esperantza 80,7 urte; Kenyakoak 47,5. Suitzako pertsonako BPG 33.040 \$; Kenyakoak berriz 1.140. Ura ez da aberats eta txiroen arteko harresi bakarra, baina bai oso garrantzitsua.

Zer ginateke gaur egun ura soberan duen lurralde batean jaio ez bagina?

**> Unesco Uraren arazoez hitz egitera etorriko zaigu Euskal Herriko Unesco etxea Arrasatera otsailaren 6an. Oso mahainguru interesgarria iragartzeko digute eta txostena euskaraz banatuko dute.**

**> Munduko Foroak** Gizarte eta ekonomia foroak bat etorri dira aldaketa klimatikoaren eragina onartzekoan. Jarrai bezate batzuek erreibindikazioekin eta has bitez besteak erabakiak hartzen.

**Ura herri eta pertsona aberats eta pobreen arteko hesi bihurtu da**

## debagoiendarrak kanpoan

Xabi Agirre > Antzuola

## "Atzerrira ateratzea derrigorrezkoa izaten da ikerketa munduan"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Xabi Agirre antzuolarra Nafarroako hiriburuan bizi da azken 14 urtetan. Biologia ikasketak egitera joan zen Agirre; haiek amaitzean, baina, tesia egiten hasi eta orain hantxe ari da lanean. Hala ere, ahal duenean etxera etortzen da.

### Lan kontuengatik joan zinen Iruñera?

Ez, ikasketak egitera etorri nintzen Iruñera. Biologia ikasketak egin gura nituen eta, nituen aukeren artean, Iruñera etortzea erabaki nuen. Ikasketak amaitu nituenean, tesia egin nuen, eta gero, lanean hasi nintzen. Orduetik hementxe bizi naiz.

### Beraz, urte mordoak daramazu etxetik kanpo.

Bai, 14 urte inguru.

### Zientzia munduan lan egiteko, Antzuolatik atera beharra dago?

Nik uste dut, zientzien munduan, Debagoienera aukera gutxi dagoela. Bertan dagoen ospitalea txikia da, eta ez dira ikerketak egiten. Gaur egun, nik ikerketa munduan egiten dut lan, eta hori Debagoienera egitea ia ezinezkoa izango litzateke.

### Beste zientzialari askok egiten duten bezala, atzerrira joateko asmorik baduzu?

Bai, asmoa badaukat. Jende asko urte baterako joaten da, lanen bat egin eta gero bueltatzeko asmoarekin.

Nik mundu honetan jarraitzeko aukera izan dut eta, alde horretatik, kanpora ateratzeko gogoz nago; nire buruari egiten diodan



GOIENKARIA

### Musikazalea

Txirula eta gaita jotzen ditu Agirrek. Orain gutxi arte Antzuolara etortzen zen entseguak egitera

exijentzia bat ere badela esan daiteke. Aste Santuaren ondoren, beharbada, hile birako-edo, Alemaniara joango naiz. Halako irteerak derrigorrezkoak izaten dira gure lanbidean.

### Urte guzti hauetan zer aurkitu duzu Iruñean?

Iruñea eta Antzuola oso ezberdinak dira, baina, egia esan, Iruñea ere hiri txikia dela esan daiteke; horregatik, oso gustuko dudana hiriburua da.

Antzuolarekin alderatuz, parke eta berdegune asko dituen hiria da Iruñea. Bada, hona etortzeko arrazoietako bat hori izan zen. Hiri handi batera ez nintzateke joango; adibidez, Madril bezalako hiriburu batera joatea zorakeria iruditzen zitzaidan, baina Iruñea beste gauza bat da.

### Musikan aritzeko giro egokia aurkitu duzu?

Orain gutxi arte, Antzuolara joan izan naiz musika entseguak egitera. Baina orain albo batera utzita daukat, lan kontuengatik.

Patxi Saizekin aritu naiz taldean, eta horregatik joaten nintzen Antzuolara. Bestalde, Iruñean ere aritu naiz musika kontuetan, orkestran. Baina tesiarekin hasi nintzenean, biak bateratzea zaila egin zitzaidan.

### Zela ikusten da Debagoienera Iruñetik?

Saiatzen naiz gure ibarraren berri ematen, baina Antzuola non dagoen ez daki jende guztiak.

### Zer ekarriko zenuke Iruñetik Antzuolara?

San Ferminak, beharbada.

## kale inkesta

Hainbeste tenperatura aldaketarekin,  
azkenaldian katarrorik harrapatu duzu?Jose Ramon Larrañaga  
Langilea  
Bergara

Oraingo, ez dut harrapatu, ez. Ez naiz modu berezian zaindu, baina tenperatura aldaketek ez didate eragin. Katarroa harrapatzen dudanean, sendagilearengana joan eta botikekin sendatzen dut.

Elena Eguren  
Langilea  
Bergara

Ez dut harrapatu, aurten zorteko nago. Umea dabil katarro pixka batekin, baina normala da, hoztu, berotu eta izerditu egiten direlako. Baina gainontzean, etxekook katarrorik eta griperik inork ez du harrapatu.

Dionisio Zubizarreta  
Erretiratua  
Bergara

Ez dut katarrorik harrapatu, oraingo, baina gripearen aurkako txertorik ere ez dut hartzen, gainera. Sendabiderik onena eguneroko erritmoari eustea da; gainontzean, ez gara modu berezian zaintzen.

Kepa Bisquert  
Langilea  
Bergara

Eguraldi hotza hasi aurretik harrapatu nuen. Eztarriko minez ibili nintzen, baina aspirinak hartu eta lanera, eta azkar pasatu zitzaidan. Baina orain, hotzak ez dit eragin, eta etxean, umeari ere ez.

## irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

## ARRASATE

## &gt; Makatzenako zebra bideak, egokitzeke

Irakurle batek dio Arrasateko Makatzena auzoko zebra bideak ez daudela gurgildun aulkiendako eta haurren aulkiendako egokituak: "Badirudi erdialdean eta beste auzo batzuetan egokitu dituztela pasabideak, baina Makatzena, beti moduan, azkena izango da, aldatzen badute, noski", dio hark kezatzuz.

## ARRASATE

## &gt; Nahasmena herriko hainbat gunetako seinaleekin

Biteri eta Maalako inguruetan sortzen den nahasmena salatu gura du irakurle batek. Alde batetik, Biterin, lurreko seinaleek zein zutikakoek sortzen dituzten kontraesanak agerian utzi gura ditu. Hain zuzen ere, "aparkalekutik irten eta seinale bertikalek alde batera zuzentzen zaituzte, eta aurrera egin eta debekatuta dago hori", azaltzen du hark. Era berean, Maalako biribilgunean ere nahasmena sortzen ei da noranzko ezberdinengatik.

## OÑATI

## &gt; Autobus zerbitzua elurteetan

Irakurle batek salatu gura du "aste honetako elurteak aitzakiatzat hartuta Pesak emandako zerbitzu txarra". Irakurle horrek goizean Bergarara joateko autobusa hartu behar zuen, Udanatik datorrena, baina ezin izan zuen etorri, eta Oñatitik Bergarara autobus bat izan beharrean, Arrasatera bidali zuten Bergarako autobusa hartzeko.

## ustek uste

Jon Berezibar

Egitura hutsak,  
baina bete  
beharrekoak

Zatarra, erabilpen praktikorik gabea eta hutsa da Arrasateko Udalak Biterin egindako pergola. Inaugurazio egunean jada bestelako iruzkinik ez zen entzuten bertaratutako artean. Hala, orain piztu zaie bonbilla udal arduradunei eta egitura ezin traketsago horri babesa ipini eta bankuak gehituko ei zaizkie. Txalo bero bat. Udalak ez du urrundik ere asmatu eta erdiguneko espazio erabilgarri eta bizigarria zitekeena orube gris, hotz eta huts bihurtu dute. Nekez beteko dute Biterin egindako hutsa konponketa berriek, ze lardas-keria da bertatik igarotzerakoan burura etor daitezkeen berbarik onena. Nahikoa lan daukate orain Udalean beste huts bat betetzen: kultur etxea. Egitura badaukagu, ea mamirik ateratzeko gai garen.

## zorroztailea



Jabier Arantzeta

## Erasoan ei dabilta

"Justiziaren aurkako euskal nazionalisten jarrera erasokorra oztopo gaindiezina da PNV terrorismoaren aurkako egiazko kontsentsuan benetan parte hartzeko prest egoteko aukera onartzeko. ETaren porrotak -izan ere, bakarrik helburu horrek adierazi ahal izango luke akordio bat terrorismoaren aurkako delaterroristek suntsitu nahi duten ordena konstituzionalaren eta sistema legalaren defentsa eraginkorra esan nahi du".

Editoriala

ABC &gt; 2007-01-28

Espainiar eskuma aspalditik da ezaguna bere itsutasun eta gorriagatik eta hori frogatzeko igandeko ABCren editoriala irakurri besterik ez dago.

Hasteko PNV erasoan ei dabil. Zure iritzia azaltzea erasoan ibiltzea omen. Hauentzat aspaldikoa da euren alde ez dagoena euren kontra dagoela eta, jakina, eurekin bat egiten ez baduzu erasoan zabilta. Gutxienez eraso horrek primerako gure futbol taldeenak baino ganora gehiago izango balu, gaitzerdi; baina horretan ere ez du askotarako balioko, ez Jaurlearitzak dioenak, ez gaurko Bilboko manifestazioak, gure epaile orojakileek gura dutena erabakiko dute eta beste hori jasatea besterik ez zaigu geratuko.

Bigarren, eurek onartu behar dute kontsentsuan benetan parte hartzeko inor prest dagoen ala ez, onarpen horren faltan inor hori ez da prest egongo eta ezingo da horrekin ezer egin. Denok garbi dute kontsentsu hori denon artean egin beharrekoa dela, baina, batzuek ahalmen bereziak dituzte horretara zeintzuk bildu daitezkeen erabakitzeke. Zorionez, ez dute esaten onarpen horiek egiteko ahalmena Jainkoak emandakoa denik.

Hirugarren, akordio batek, terrorismoaren aurkako izateko ETA porrota bilatu behar du. Urteak aurrera egin arren hauek ez dira espabilatzen. Duela hirurogeita hamar urte gerra piztu zuten gorri separatisten porrota bilatzeko eta urte guzti hauek pasatu eta gero gorriko gobernuan daude eta separatistok separatismo apur bat gehiago daukagu. PSOEko gorriak kolore arrosa oso motelekoak dira eta Autonomia Estatutua nahiko mixerable eta kaxkarra da, baina inoren suntsipenetik ez da ezer lortzen. Honezkerok jakin beharko luke Espainiako eskuma itsu horrek inoren porrota bilatzea baino askoz praktikoa dela inor horrekin akordioa bilatzea; izan ere, inor horren porrotetik beti aterako da are eta haserreago dagoen beste norbait eta elkarbizitza ezinezko egingo du.

**"Batzuek ahalmen berezia dute kontsentsura zein bidali erabakitzeke"**

**"Inoren porrota bilatzea baino praktikoa da akordioa bilatzea"**

## Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredaktoria Mireia Bikuña, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldiegí Oinarrizko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano, Oxel Arrieta Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETAK  
20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako  
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**  
Gaur, astelehena, zabalduko dute berriro Garibai kalea, zirkulazio aldaketa batzuekin > **10**



> **BERGARA**  
Urtea bukatu baino lehen hasiko dituzte Mizpirualde egoitza handitzeko lanak > **11**



> **ESKORIATZA**  
Herriko kale eta lekuen izenak Euskaltzaindiaren arauetara egokitu ditu Udalak > **13**



JAIOTZA-BASERRIA Zubillagako Txipitxaille baserrian ipini dute Aita Madinaren omenezko plaka.

JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > OMENEZKO PLAKA ERAKUTSI ZUTEN ATZO AITA MADINAREN BASERRIAN

## Musikari handiaren omenezko plaka ipini eta kontzertua egin zuten atzo

### MENDEURRENA

Gaurko egunez jaio zen 1907an Oñatiko musikaririk unibertsalena

### OBRA BERPIZTUZ

Oñatiko saioez gain, Azpeitia, Errenteria eta Donostian ere omenduko dute

JON BEREZIBAR > OÑATI

Zubillagako Txipitxalle baserrian jaio zen, gaur ehun urte, Aita Madina, Oñatiko musikagilerik unibertsalena. Auzoko ermitan omenezko meza egin eta gero, mendeurrena ospatzeko plaka erakutsi zuten atzo ekitaldi jendetsu baten. Oñati Abesbatzak hartu zuen parte, ohorezko mezan abestuz. Aita Madinaren urtea izango da aurtengoa Oñatin, eta zelan, musikarekin baino hobe, haren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko. Hala, atzo iluntzean, Santa Ana aretoan, kontzertua egin zuten Cristina Sanchez harpa-joleak eta Anouska Antunez piano-joleak haren lau obrarekin: *Suite Popular*, *Cuatro piezas para órgano*, *Sonata vasca* eta *Concertino vasco*.

**AITA MADINAREN URTEA**

Aita Madinaren lan oparoa bizi-berrituko dute aurten, hain zuzen ere, haren lana eta konposizioen

maila gogora ekartzeko. Parrokian izan zen, abenduaren 15ean, lehen hitzordu handia, Donostiako Orfeoia eta Euskadiko Orkes-

tra Sinfonikoarekin. Hala ere, ez dira Oñatin bakarrik entzungo Oñatiko musikagilearen lanen oihartzunak, Azpeitia, Errente-

ria eta Donostiako Musika Jardunaldietako egitarauetan leku berezia izango dute-eta sormen handiko Aita Madinaren obrek.

BIOGRAFIA

### Oñatiko musikaririk unibertsalena

1907an jaio zen Aita Madina, Zubillagan, baina arrakastarik handiena AEBetan eta Argentinan izan zuen, nahiz eta Oñati eta Bordelen musika ikasi. Han, musika idazteaz gain, apaiz bizitza egin zuen. Oso gazte hasi zen musika idazten, eta haren lana sustrai herrikoietatik edatearren ezaugarritzen da gehienbat, konposizioen kalitate eta maila jasoari uko egin barik.

Buenos Airesen, Lagun Onak abesbatza sortu zuen, herrialde horretako abesbatzarik garrantzitsuenetakoa izan zena. Saski Naski gazte taldearen bultzatzaileetako bat ere izan zen, eta 1946an, horretan zebilela, idatzi zuen bere lanik ezagunena: *Aita Gurea*. 1958an joan zen New Yorkera, haren ibilbideko sasoirik arrakastatsuenari ekinez.

1966. urtean, osasun arazoen eraginez etorri zen artista eta elizgizonaren gainbehera fisikoa. Hala ere, sorkuntza aldetik, oparo jarraitu zuen Aita Madinak. 1972. urtean hil zen musikari handia Oñatin bertan, herrian bisitan zegoela. Hil baino lehenago, omenaldi herrikoia jaso zuen jaioterrian, eta egun gutxitara zendu zen.



Aita Madina.

GOIENKARIA

OBRAK &gt; GARIBAI ETORBIDEA

# Gaurtik, astelehena, zabalik izango da Garibai

Inguruko zenbait errepidetan, noranzko aldaketak egingo dituzte Garibai zabaldu eta gero; autobus geltokiak ere lekuz aldatuko dituzte

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Gaurtik aurrera, Garibai etorbidea atzera ere zabalik izango dugu. Hori bai, aurrerantzean, Maalako biribilgunetik Biteri aparkalekuraino errepide zatian bakarrik zerbitzu publikoak sartu ahal izango dira: autobusak (Pesa, urbanoa, ikasleenak, Aramaiorakoa...) eta taxiak. Gainerako ibilgailuek debekatuta dute sartzera.

Hori horrela, etorbidearen lehen zati horretan, espaloia eta errepidea maila berean daude, oinezkoek lehentasuna dute-eta.

**GELTOKIAK GARIBAIRA**

Garibai zabaltzeak ekarriko du, baita ere, autobus geltokiak, orain arte Saiolanen atzean (Cerrajeran) zeudenak, lehengo lekuetara bueltatzea, Abaroa parera. Hain justu, bi geralekuetan obra egin du Udalak espazioa handitzeko, besteak beste, Lurraldebus dela-eta, orain lehen baino autobus gehiago ibiltzen delako. Cerrajerako autobus geralekuari dagokionez, berriz, "desagertu egingo da", esan du Zerbitzu Sailak.

Garibai etorbidean izan den beste aldaketetako bat da komun publiko ipiniko dutela, Seberren dagoenaren antzerakoa, bakarrik garbitzen den horietakoa. Gas-



GARRAIO PUBLIKOAK Mahalako biribilgunetik Biteriraino bakarrik garraio publikoak sartu ahal izango dira. JOSETXO ARANTZABAL

teizen dago, muntatuta eta guzti. Arrasatera ekartzea falta da, baina hori eguraldiaren arabera egin ahal izango dute.

**ARRASATE PASEALEKUA ITXI**

Obra kontuekin jarraituz, udaltzaingoak abisatu du gaur Arrasate pasealekua itxi egingo dutela Batzokiaren atzeko alde inguruan. Beraz, han garajea dutenek Foruen plazatik egin behar dute sartu-irtena egiteko.

## ALDAKETA GEHIAGO

## Zirkulazioan aldaketak izango dira

Gaurtik, zirkulazioan zenbait noranzko aldaketa finkatuko dituzte. Batetik, Maala kalean, ertzain etxe ondotik pasatzen den kalean, Gipuzkoa etorbide-tik Nafarroa etorbidera egin daiteke egun. Aurrerantzean, berriz, alderantziz izango da: Nafarroa etorbide-tik Gipuzkoa etorbidera joan daiteke; gainera, Gipuzkoa etorbidean semaforoa ipini dute, bidegurutzera erregulatzeko.

Bestetik, Musakola auzotik San Andres auzura joateko ezingo da pasatu Grupo San Juan auzotik; San Andrestik Musakolara joateko, aldiz, bai. Orain arte, bi kasuetan zeharka zitekeen Grupo San Juan.

Azkenik, Hotel Mondragon pareko errepideak bi noranzkoak izango ditu.

UDALA &gt; URTARRILEKO OHIKO OSOKO BILKURA

# Etxe babestuak zozketatzeko arauak gaur zehaztuko dituzte

09:00etan hasiko da osoko bilkura; Gelmako eta Urribarriko etxebizitzak berbagai izango dira

Iñaki de Juanaren egoera ere berbagai izango dute, mozioen bitartez

U.M. &gt; ARRASATE

Urtarrilari dagokion osoko bilkura egiteko hitzordua zuen gaur udalbatzarrak, eta 13 gai, zerrendan aurreikusita.

Horien artean, babes ofizialeko etxebizitzak zozketatzeko irizpideak zehazteko ziren. Hain zuzen ere, Urribarri auzoan (Erguin inguruan) babestutako 40 etxebizitza eraikitzen dabilta, eta Zabalgunea eremuan, 131. Gelmako etxeak dira azken horiek.

Zozketa horietan parte hartzeko, derrigorrezkoa da Etxebiden izena ematea. Gainerako betebeharrak gaur zehaztuko dituzte. Esaterako, erabaki beharko dute, ea Etxebiden izena emanda izan arren, Arrasateko Udalean ere izena eman beharko den edo etxe horiek

zelako erregimenean emango dituzten (ez dira alokairuan hartzeko izango, adibidez).

**ZOKKETAREN DATA**

Hori egin eta gero, irizpideak eta zozketan parte hartuko dutenen zerrenda jendaurrean ipiniko dituzte hilabetez, erreklamaziorik balego, horiek jasotzeko. Eta hori guztia egin eta gero finkatu ahal izango dute zozketa egiteko data.

**SAN JOSEPE HARROBIA**

Bestalde, San Josepe harrobia behin betiko itxi eta geroko erabilera erabakitzeak kudeaketa hitzarmenaren zirriborroa ere aztertu dute gaurko batzarrean.

Baita harrobi horren gainean zenbait herritarrek egindako proposamena ere: haren geroa erabakitzeak ideia lehiaketa deitza.



GELMAKO ETXEAK Zabalgunean 131 etxebizitza egiten ari dira. JOSETXO ARANTZABAL

**IÑAKI DE JUANA CHAOS**

Bukatzeak, presoan aldeko Etxerat elkarteak Iñaki de Juanaren aldeko mozioa aurkeztu du, bes-

teak beste, haren "baldintza bako askatasun" eske. EAJ, EA eta EBk, berriz, gai beraren gaineko mozio alternatiboa aurkeztu dute.

SANTA AGEDA

## Eguaztenean batzarra, Santa Ageda prestatzeko

Urtarrilaren 31n, 21:00etan, batzarra egingo dute, Karkabal elkartearekin

U.M. &gt; ARRASATE

Otsailaren 4an, domeka, Santa Ageda bezpera dela-eta, deia egin dute Santa Agedako kantari, poltsero eta laguntzaileei Karkabal elkartera joan daitezen ekitaldia prestatzera. Etzi, eguaztena, 21:00etan egin dute hitzordua.

**IAZ, 6.000 EURO PASATXO**

Iazko ekitaldiari dagokionez, 6.170 euro batu zituzten Santa Agedako Koruek, eta Parrokiarteko Caritas elkartearen bidez banatu. Hain zuzen ere, ama ezkongabeendako 1.300 euro izan ziren; ama bananduendako, 1.400 euro; ezindu eta gutxituendako, 1.600 euro; etxeak alokatzeko, 1.500 euro, eta eskaleendako eta etxe bakoendako, 370 euro.

ZAHARREN EGOITZA > ALDUNDIAK ETA UDALAK HITZARMENA SINATU DUTE

# Aurten hasiko dituzte Mizpirualde handitzeko lanak

2008. urtean, ohe gehiago, eguneko zentroa eta tutoretzapeko etxeak Mizpirualden

Euskalit erakundeak kudeaketa onarengatik saritu du egoitza, eta zilarrezko 'Q'-a lortzeko bidean dago

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gipuzkoako Aldundiak eta Bergarako Udalak hitzarmena sinatu dute Mizpirualde egoitza handitzeko. 2008. urtean, 26 lagun gehiagorendako tokia izango du: orain 115 ohe ditu, eta gero, 141 izango ditu; 25 edo 30 pertsonarendako eguneko zentroa; unitate psikogeriatrikoa; eta tutoretzapeko sei apartamentu bikoitz. 3.233.333 euro da aurrekontua; %75 Aldundiak ordainduko du, eta gainerako %25, Udalak. Maizta bukatu orduko egingo dute proiektua, eta lanak urtea bukatu baino lehen hasiko dituzte.

ZERBITZUA HOBETU

Egubakoitzean sinatu zuten Mizpirualde handitzeko hitzarmena Aldundiak eta Udalak. Antzuolako eta Elgetako alkateak ere egon ziren ekitaldian, bi herri horietako biztanleak ere Mizpirualdera etortzen direlako beharra heltzen zaien. Bi udal horiek egoitzan dauden antzuolar eta elgetar kopuruaren araberako zenbatekoa jartzen dute.

Esther Larrañagak, Gizarte Politikarako diputatuak, esan zuen moduan, "orain ezintasuna



HITZARMENA Esther Larrañaga gizarte politikarako diputatuak eta Victoriano Gallastegi alkateak sinatu dute hitzarmena. o.e.

du tenak daude egoitzan, baina, obra hauekin, bi zerbitzu gehiago izango ditu Mizpirualdek: eguneko zentroa eta nolabaiteko autonomia baina oraindik laguntza berezia behar dutenendako tutoretzapeko apartamentuak. Horrez gain, 15 pertsonarendako unitate psikogeriatriko bat ere izango du, dementzia eta portera arazoak dituztenak zaintzeko". Unitate hori Mizpirualde barruan kokatutako egoitza txiki bat izango litzateke.

ERAIKIN BERRIA

Zerbitzu berri horiek eskaintzeko, eraikin berria egingo dute. "Frontoia eta euskaltea dauden aldera zabalduko dugu gure

eraikina. Ondoan dugun terraza ez dugu botako, baina azpitik lotuko ditugu eraikin zaharra eta berria. Egun euskaltea dagoen tokian egingo dugu eguneko zentroa eta, horren ondoan, tutoretzapeko etxebizitzak", azaldu du Gregorio Iruretagoiena Mizpirualde egoitzako zuzendariak.

Obraren proiektuaren zirriborroa eginda dagoela onartu du Victoriano Gallastegi alkateak. Hala ere, maiatzerako egongo da gertu, Gregorio Iruretagoienak esan digun moduan. "Proiektuak berak jarriko ditu epeak gero. Pleguak prestatu behar dira eta lanak adjudikatu, baina lanak datorren urtean bukatzea nahi dugu", esan du alkateak.

ZILARREZKO Q-A

Bestalde, Mizpirualde egoitza zilarrezko Q-a lortzeko bidean dago. Euskalit erakundeak saritu egin du hiru arrazoi hauengatik: bezeroak ondo bideratzeagatik, egiten duen talde lanarengatik eta etengabe hobetzen saiatu direlako. Mikel Eguren Euskaliteko ordezkariak ziurtagiria eman dio egoitzari, eta kudeaketa onarengatik jaso dezakeen zilarrezko Q-a lortzeko bidean jarri du Mizpirualde. Ziurtagiria alkateak hartu zuen, egoitzako presidentea delako.

Momentu honetan, 115 lagunendako tokia du Mizpirualde egoitzak, eta ohe guztiak okupatuta daude.

## Udal euskaltea eta Zabalotegiko frontoia botako dituzte

Euskaltea aldera handituko dute Mizpirualde, eta Zabalotegiko frontoia eta udal euskaltea bota egingo dituzte horretarako.

"Dagoeneko hasi gara euskaltea berriarendako toki bila. Badugu buruan toki posible bat, eta laster hartuko dugu erabakia. Erdigunean dagoen lekua da, eta ez dut uste obra askorik egin beharko dutenik euskaltea behar dituen gelak eta bestelakoak antolatzeke", esan du Victoriano Gallastegi alkateak. Datorren ikasturtea eraikin berrian hasiko du udal euskaltea.



Mizpirualdeko eraikin berria eta tutoretzapeko apartamentuak egingo dituzte euskaltea dagoen tokian. o.e.

> AGORROSIN

## 1.900 lagun egin dira bazkide Agorrosin urtarrilean

1.900 lagun egin dira bazkide Agorrosin urtarrilean. Egutero, 900 erabiltzaile josten dira, batez beste. Orain, bazkide direnendako igeriketa teknika lantzeko saio irekiak eskaintzeko ideia lantzen ari dira Agorrosingo langileak. Bazkide egin nahi duenak Agorrosinera joan behar du eta orri bat bete behar du. Hilero ordaindu behar da kuota eta, baja emateko, hilaren 25a baino lehen eman behar da abisua.

> BERTSO-AFARIA

## Xabi Paya eta Andoni Egaña Artatsera datoz otsailaren 10ean

Xabi Paya eta Andoni Egaña bertsolariak datoz otsailaren 10ean Artatse elkartearen egingo duten bertso afarira. Euren batera, trikitilariak egongo dira giroa alaitzeko. Sarrearak dagoeneko salgai jarri dituzte. Taberna hauetan daude: Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren. Sarrera bakoitza 20 euro kostatzen da; langabetu eta gazteandako, 12 euro. Bertso afaria 21:00etan izango da.

> IKASTAROAK

## Informatika eta argazkilaritza eskolak San Joxepen

Informatika eta argazkilaritza ikastaroak emango dituzte San Joxepe elkartearen. Otsailaren lehen astean hasiko dira ikastaroak. Informatikakoak oinarrizko ikastaroen izango dira. Horrez gain, Word programa ikasteko ikastaroa eta argazkilaritza ere emango dituzte. Astearen behin edo bitan izango dira eskolak, eta 14 eta 24 ordu artekoak dira. Informazio gehiago San Joxepe elkartearen emango dute.

> PAILAZOAK

## Gaurtik daude salgai Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak

Gaur, astelehena, jarriko dituzte salgai Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak. Pirritx eta Porrotx otsailaren 17an, zapatua, datoz Bergarara. Udal pilotalekuan ekainiko dute euren azken ikuskizuna: *Mari Motots*. Sarrerak lau eurotan daude salgai kultura etxean eta Elkar liburudendan. Sarrera guztiak aurrez saltzen badituzte, emanaldi egunean bertan ez dituzte leihatilan txartel salduko.

KIROLA &gt; ESKUBALOIA

## Asobal ligako bi talderen arteko eskubaloi partidua antolatu du Txanda elkarteak

J. D Arrate eta Darien Logroño taldeen arteko norgehiagoka zapatuan, otsailaren 3an, jokatuko da

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Eskubaloi munduko goren mailako txapelketa jokatzen duten bi taldeen arteko norgehiagoka antolatu du Txanda dendarien elkarteak, Aloña Mendiren laguntzarekin. Alemanian jokatzen ari den Munduko Eskubaloi txapelketa tarteko, Asobal ligak duen atsedena aprobetxatu du Txandak punta-puntako bi talde Oñatira ekartzeko.

Eibarreko J.D Arrate eta Darien Logroño taldeen arteko partidua Zubikoa kiroldegiko kantxan jokatuko da, zapatuan, otsailaren 3an. Partidua ikusteko sarrera doan izango da.



J.D. ARRATE Eibarko taldeak Asoba ligab duen taldea gertutik ikusteko aukera izango dute zaleek.

GOIENKARIA

### BI TALDE EZBERDIN

Hamabost jardunaldi jokatuta dituzte orain arte Asobal liga jokatzen dute hamasei taldeek. Bada, Eibarko eta Errioxako taldeek bide ezberdina jarraitu dute orain arte.

Hala, J.D Arrate taldeak 13 puntu eskuratu ditu orain arte, eta sailkapeneko zortzigarren tokian dago. Darien Logroño tal-

deak, aldiz, zortzi puntu ditu eta 14. da sailkapenean.

Txanda dendarien elkarteak zozketa berezia egingo du zapatuan, Zubikoa kiroldegian, J. D Arrate eta Darien Logroño taldeek jokatuko duten partiduen atsedendian. Bi sari zozketatuko dira: Txanda elkarte dendetan gastatzeko 1.000 euroko erosketa bonoa, eta

urdaiazpikoa.

Zozketan parte hartu ahal izateko txartelak asteon salduko dituzte. Hain zuzen, ikastetxetako neska-mutikoei salduko dituzte txartelak kalez-kale. Zapatuan, norgehiagoka hasi aurretik ere, txartelak salgai ipiniko dituzte kiroldegian bertan. Aipatu txartelak euro baten truke salduko dira.

ANTZERKIA &gt; IBARREAN ESTREINALDIA

## 'Ama, quiero ser lehendakari', Glu Glu taldearen azken antzezlan, Inauterietan

Loli Astoreka, Ane Gabarain, Galder Perez, Maribel Salas, Patxi Perez eta Mari Cruz Melgosa dira aktore protagonistak

Oñatiko emanaldia otsailaren 16an izango da, Sta Ana antzokian, gaueko 10:30ean

M.B. &gt; OÑATI

Oñatiko Kultura batzordeak Aratusteetarako osatu duen egitarauan, *Ama, quiero ser lehendakari* antzezlan sartu du. Glu Glu taldearen lan berriena otsailaren 16an eskainiko da Santa Ana antzokian. Emanaldia gaueko 10:30ean hasiko da.

### ZER KONTATZEN DUEN

*Ama, quiero ser lehendakari* antzezlanean, lehendakari izan nahi duten lau anai-arrebaren istorioa kontatzen da. Egunkarian lehendakari berri baten bila dabilzala irakurri ondoren, denek postu hori bete guran, liskarrak sortuko dira euren artean.

Hauteskundeetara aurkeztu nahi dutela erabaki ostean, zein alderditan parte hartuko duten erabaki beharko dute. Baina hori ez da izango protagonistek izango duten kezka bakarra; bakoitzak duen irudia, jende aurrean

hitz egin behararen ardura edo familiak berria nola hartuko duenaren ardura izango dute buruan.

Dena dela, saltsarik bitxiarena amarena izango da. Amak izango du erabaki zailena hartzeko ardura: hauteskunde egunean botoa zein seme-alabari eman erabakitzeko ardura, alegia.

### PROTAGONISTAK

*Ama, quiero ser lehendakari* antzezlanean kontatzen den istorio bitxiari bizitza emateko, aski ezagunak diren aktoreak aukeratu zituen Aitzpea Goenagak zueidariak.

Loli Astorekak egingo du amaren papera, eta Ane Gabarain, Patxi Perez, Maribel Salas, Galder Perez eta M<sup>a</sup> Cruz Melgosa izango dira seme-alabak.

Aitzpea Goenaga aktoreak idatzi eta zuzendu duen antzezlan hilaren 23an estreinatu zen Bilboko Arriaga antzokian.



AKTOREAK Argazkian, antzezlaneko protagonistak.

GOIENKARIA

ELKARTASUNA

## Argentinara bidean da kontainer berria

Arropak, liburuak, oinetakoak, kontserbak eta oihalak bidali dira

M.B. &gt; OÑATI

Argentinarako 16. kontainerra joan den astean abiatu zen Oñatitik. Materiala hogeitun egun barru iritsiko da Buenos Airesera. Bi hilabete besterik ez dira pasa aurreko kontainerra Oñatitik irten zela; orduan, Osakidetzak emandako hamar ordenagailu bidali ziren.

Material asko jaso da azken kontainerrean: arropak, janari kontserbak, oinetakoak, jostailuak, liburuak eta Argentinan bertan arropak egiteko erabiliko diren oihalak bidali dira, besteak beste. Bi hozkailu eta beste horrenbeste bizikleta ere bidali dituzte.

### HURRENGOA GERTATZEN

Hamaseigarren kontainerra Argentinarako bidean jarri orduko, 17.a gertatzen hasi dira. Antolatzaileen asmoa kontainer berria apiril alde-rako gertatzea da.

Argentinarako Elkartasun taldeak Bidebarrieta kalean duen lokalean jasotzen du materiala.

LANGABEZIA

## %3,92ko langabeziaz amaitu zen 2006. urtea

Langabeziak behera egin zuen iaz Oñatin. INEMek emandako datuen arabera, urtea 3,92ko langabeziaz amaitu zen, 2005eko datuekin alderatuta, 12 langabetu gutxiago.

Sexuari erreparatuta, 2006ko abenduaren 31n, 2005ean baino bost emakume gehiago zeuden langabezian. Gizonezkoak, aldiz, 17 gutxiago ziren.

2006a gorabehera handiko urtea izan da langabeziari dagokionean. Martxoan eman zen urteko langabezia tasarik altuena Oñatin: %4,85. Orduetik, poliki-poliki murrizten joan zen. 2006ko langabezia tasarik baxuena irailean eman zen; %3,68ko langabezia tasa.

ESKORIATZA > EUSKARA

# Araura egokitu dute herriko kale izendegia

Euskaltzaindiaren arauak jarraituta, izendegia berraztertu eta aldaketak onartu ditu Udalak

Batik bat, idatzizko hizkuntzari eragiten diete arauak; gutxiago, ahozko hizkuntzari

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA  
Eskoriatzako kale eta leku izendegia Euskaltzaindiaren arauak betetzeko aldatu dute. Hala onartu zuen Udalak abenduaren 28ko osoko bilkuran. Horrek ez du esan gura hitz egiteko orduan erabiltzen den izena gaizki dagoenik, baizik eta, batez ere, idazterakoan kontuan hartzeko araua ezartzen du. Beste kasu batzuetan, leku edo eraikin jakin batendako izendapen ofizial bat onartu du Udalak.

Eudelek Euskaltzaindiarekin duen hitzarmen baten ondorioz, hala gura duen udalak aholkularitza eska diezaioke Euskaltzaindiari bere leku izenak arauetara egokitzeko, eta aukera horretaz baliatu da Eskoriatzako Udala, bere Kultura Batzordearen bidez. Batzorde horrek Euskaltzaindiaren aholkuen arabera egokitutako izendegia aurkeztu zion Udaltzarrari joan den abenduan, eta

horrek Batzordearen proposamen guztiak onartu zituen.

**TOKIAN TOKIKOA GORDE**  
Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak arau batzuk ditu Euskal Herriko leku izenak finkatzeko. Mikel Gorrotxategi arduradunak dioskunez, "Euskal Herrian irizpide berberak ditugu, baina tokian tokiko berezitasunak gordetzen dira, adierazgarriak eta ez atzo goizekoak badira". Era berean, azpimarratzen du ahozko hitzaren erabilera: "Hitz egiterakoan *Atxabalta* hitza erabiltzea ez dago gaizki, baina jendeak jakin behar du idazterakoan forma landua erabili behar dela".

Eskoriatzaren kasuan, lehen aipatutako San Jurgi izenak tradizioa baduela konturatu ziren: hala, adinekoek izen hori gogoratzen eta erabiltzen zutelak jakin zuten.



GAZTAÑADI AUZOA Idazkera ofiziala *Gaztañadi* da orain.

JOSETXO ARANTZABAL

## Izendegiko zenbait adibide

LEKUA	IZEN OFIZIALA
Gaztainadi auzoa	Gaztañadi auzoa
Eskoriatza kalea	Eskoriatza hirigunea
Aizorrotz bidea	Atxorrotz bidea
Maringo eliza	Andra Maria Magdalena
Apotzagako eliza	Done Mikel / San Miguel eliza
San Jorge	San Jurgi ( <i>Sanyurgi</i> ahoskatuta)
Mazmelako eliza	Andra Maria Zeruratzearena eliza

ARETXABALETA

# Lokala lortu du Karnabal Komisiñuak jaietarako

A.G. > ARETXABALETA

Karnabal Komisiñua eratu dute herriko hainbat koadrilak Aratusteetara begira. Euren lehen lorpena Udalak lokal bat uztea izan da, eta dagoeneko ekintzak antolatzeko lanean hasi dira: joan den egubakoitzean izan zuten lehenengo batzarra, eta elkar-tzen jarraituko dute.

Batez ere, Aratusteetan gurdiak-eta ateratzen dituzten taldeendako da lokala; izan ere, euren esanetan, orain arte ez dira behar bezain ondo ibili, batez ere, eguraldi txarra egiten zuenean. Orain, Gellaora bidean, 200 m<sup>2</sup>-ko pabilioia lortu dute.

**IAZKOAREN EMAITZA**

Karnabal Komisiñoko Aitor Zubizarreta kideak honela baloratzen du taldea sortu izana: "Iaz egindako lanaren emaitza da. Iaz, Udalarekin egotea lortu genuen, eta herri bazkaria antolatu genuen. Koadrilen izenean eskaerak egin genituen. Eta aurren, talde hau sortu dugu".

Hala, batik bat koadriletako kideek osatzen dute orain arte Karnabal Komisiñua, baina Zubizarretak gogorarazten du "aretxabaletar guztiei" zabalik dagoela taldea.

ARETXABALETA > HIRIGINTZA

# Erdigunean dagoen bidegorri zatia asfaltatu egingo dute

Joan den astean ziren bidea asfaltatzekoak, baina eguraldi txarrak galarazi egin ziren

A.G. > ARETXABALETA

Aretxabaleako erdiguneko bidegorri zatia ia gertu geratuko da datorren astean barrena. Hain zuzen, asfaltoa botatzea falta zen, eta baita margotzea eta argiteria sarea osatzea ere, eta lan horien zati handiena datozen egunotan egingo dute. Asfaltatzeko behar ziren makinak zati horretan geldirik ikusi dituzte herritarrok joan den astean, baina lanik ez da egin; izan ere, Jose Mari Segoviak, Udal Hirigintza teknikariak, dioskun moduan, "eduki ditugun tenperatura baxuak, elurra eta hezetasuna ez dira batera egokiak asfaltoa botatzeko,

eta horregatik, lanak atzeratzea erabaki zen, baina datorren astean asfaltatzen bukatuko dute".

**GORRIZ MARGOTZEA**

Argi-instalazioak ere ipintzekoak ziren joan den astean, baina lan hori ere eguraldi txarrarengatik eten zuten, eta datorren astean amaituko dutela esan du Segoviak.

Aurreragorako geratuko da, berriz, bidegorria bere kolore gorri margotzea. Izan ere, horretarako, luzaroan eguraldi ona egitea behar da, eta horrelako bolada bat iritsi arte itzarotea erabaki du Udalak.



MAKINAK Asfaltatzeko makinak bidegorrian geldirik egon dira joan den astean.

MIRARI ALTUBE

ANTZUOLA &gt; ZALETASUNAK

# Herriko zikloturistek taldea osatu dute, eta kamiseta ere aterako dute laster

Gabonetan hasi ziren astero batera irteten, domeka goizero; orain arte, Deba eta Arrasatetik buelta egin dute, baina, eguraldi onarekin beste bide batzuk egingo dituzte

LEIRE KORTABARRIA &gt; ANTZUOLA

Herriko hainbat zikloturista eta txirrinduzale elkartu egin dira talde bat eratzeko. Ez hori bakarrik: izaera hori baieztatuko duen taldeko kamiseta aterako dute laster. Kamisetak Antzuola izena eramango du. Ez dute laguntzailerik izango; herriaren izena agertuko da bakar-bakarrik.

Antzuolar horien txirrinduzaletasuna ez da gaur goizekoa, baina "aurten hasi gara talde moduan irteten", diosku antolatzailerik batek, Imanol Garmendiak. "Gabonetan egin genuen lehenengo batzarra, eta irteera antolatu genuen. Lehe-



TALDEA Orain arte bakarka zebiltzan txirrindulariak elkartu egin dira irteerak egiteko.

JOSETXO ARANTZABAL

nengo egunean, 14 lagun batu ginen. Eguraldi txarra egin duenean, berriz, batzuetan bost, beste batzuetan hamar... denetarik egon da", diosku Garmendiak.

DOMEKERO

Taldeko kideak domeketan batzen dira Altzarte okindegi parean, 09:30ean. Debaraino joaten dira, eta gero Arrasatetik

buelta ematen dute; 80 bat kilometroko ibilaldia. Orain arte, beti ibilbide berbera egin dute. "Hotz egin du, eta beti buelta hori egin dugu; gero, eguraldi ona

datorrenean, beste batzuk ere egingo ditugu", dio Garmendiak. Lehen norbera bere aldetik irtezen zen, eta orain, ibilaldiok batera egiteko aukera dute.

ARAMAIO &gt; OSOKO BILKURA

## Kiroldegia eta kultur etxea nork kudeatu landuko dute

Bi mendi berriro landatzeko lanen lehiaketaz ere berba egingo du bilkurak

L.K. &gt; ARAMAIO

Kiroldegia eta kultura etxea datozen bi urteotan zeinek kudeatuko duen eztabaidatuko du Osoko Bilkurak etzi, eguaztena. Horrek antolakuntzan aldaketa batzuk ekarriko ditu: hain zuzen, kultura etxeko zinema saioak ere kudeatzaile berberak eramango ditu.

Bestalde, San Adrian eta Durakogaineko mendiak berriro landatzeko lanak lehiaketara ateratzeaz hitz egingo du Osoko Bilkurak etzi. Udal aurrekontuetan partida garrantzitsuenetarik bat dute lan horiek: 51.315 euro, hain zuzen ere.

Horrez gain, Masusta haurreskolako garbiketa lanak ere esleituko dituzte.

Joan den astean zen batzartzeak Osoko Bilkura, baina bertan behera utzi behar izan zuten; hortaz, etzi, eguaztena, batzartuko dira, arratsaldeko seietan.



BIDE TXARRA Etxabarri baserriak lurrezko pista estu bat dauka. J. ARANTZABAL

LEINTZ GATZAGA &gt; OBRAK

## Etxabarriko bidea egiteko lanei bigarren aukera bat

Lanok egiteko baldintzak berrituko dituzte, lehiaketa hutsik geratu zelako

L.K. &gt; LEINTZ GATZAGA

Goiztarri auzoko Etxebarri baserrira bidea egiteko lanak lehiaketara aterako ditu berriro Udalak, baldintzak berritu ondoren. Izan ere, deialdia egin zuten, baina hutsik geratu zen. Baserriaren jabe Asier Ugartek dioskunez, baldintza ekonomi-

koak 2005eko aurrekontuaren arabera eginda zeuden, eta gaur egun, galerak ekarriko zizkion lanak egingo zituen enpresari.. Beste eragozpen bat zen bidea nahiko motza izango zela -300 metro-, eta lanen kostua handia litzatekeela. Hain zuzen, 72.000 bat euroko aurrekontua zuten, eta orain, seguruenik, 96.000 bat eurokoa izango dute.

ARGINDARRA ERE BAI

Gaur egun, Etxabarri joateko lurrezko pista estu bat bakarrik dago. Asmoa da obra bakarrenekin argindarra ere sartzea.

ELGETA

## AHTren gainean hitz egiteko bilera barikuan

Udaletxean izango da eta edozein herritarrek eman ahal izango du trenaren gaineko iritzia

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ELGETA

Egubakoitzean, Abiadura Handiko Trenaren gaineko batzarra egin zuen horretarako sortu den taldeak. AHTren aurkako jarraiazaldia zuten bertaratutakoek, baina taldearen helburua da gaiaren gainean eztabaidatzea eta jarrera guztiak biltzea. Horretarako, elgetarrei dei egiten diete datorren egubakoitzean, otsailaren 2an, 20:30ean, udaletxean egingo den bilerara joateko.

HERRITARREI PENTSARAZTEKO

Trena Elgetatik pasatuko ez bada ere, obrak laster hasiko direnez, pentsarazi egin nahi diete herritarrei honen inguruan: proiektua bera zer den, zertarako, zein ondorio ekarriko dituen... Elgetako taldeetako eragileak zein beste edozein herritarrek izango du aukera iritzia azaltzeko.



KULTURA ETXEA Zerbitzu horretaz hitz egingo dute etzi Osoko Bilkuran. A.G.

# Kirola



**> FUTBOLA**  
UDAK eta Mondrak berdindu egin dute ibarreko derbia **> 18**



**> ESKUBALOIA**  
Ford Mugarrik 28-29 galdu du Askartzaren aurka etxean **> 19**



**> SASKIBALOIA**  
Eskoriatzak garaipenarekin hasi du bigarren itzulua **> 20**



**> SASKIBALOIA**  
Arrasateko Mugarri Alkesak liderrarekin 95-88 galdu du **> 20**

## Eskia gustuko dutenek badute non egin aukera

Aretxabaletako Murruxio elkarteak Luz Ardidenera egingo du irteera otsailean, eta Antzuolako Arrolak, Candanchura, martxoan

Besaide, Pol-Pol eta Aloña Mendi elkarteek irteera bereziak antolatu dituzte Aste Santurako, Frantziako Alpeetara

### ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Debagoieneko eskizaleak zorioneko daude. Aurtengo negua epel joan da, baina azken egunotan botatako elurrak mendiak zuriz jantzi ditu. Hori horrela, eski eta mendi elkarteak hasi dira irteerak antolatzen.

Gurean, hiru elkarte dira, batik bat, mendi irteerak antolatzen dituztenak: Arrasateko Besaide, Bergarako Pol-Pol eta Oñatiko Aloña Mendi. Horiez gain, baina, Antzuolako Arrolak, Aretxabaletako Murruxio eta hainbat eskolak ere antolatu dituzte eski irteerak.

### FORMIGAL ETA BAQUEIRA

Besaidek urtarriletik martxora arteko aste bukaera guztietarako antolatu ditu eski irteerak. Irteerak zapatu goizean izango dira, eta domeka arratsaldean itzuliko dira. Baina bi salbuespen egin dituzte: datorren astean, hau da, otsailaren 2an, eta martxoaren 9an, irteerak egubakoitz arratsaldetan izango dira, zapatu goizean beharrean. Irteera guztiak Formigalera egingo dituzte, eta prezioa 100 euro eta 125 bitartean izango da (egubakoitzean aterako diren aste bukaeretan, prezioak altuagoak izango dira). Informazioa eta izenematea Besaideko lokalean egin behar da, edo 943 77 30 66 telefonon.

Pol-Pol elkarteak Baqueirara antolatu ditu irteerak; guztiak egubakoitz arratsaldetik domeka arratsaldera izango dira. Izenematea 19:00etatik 20:30era da, Pol-Polen bulegoan edo 943 76 48 51 zenbakian.

Baina bergararrak ez dira izango Baqueirara joango diren

bakarrak; Aloña Mendik ere hara egingo ditu irteerak. Bi irteera izango dira: otsailaren 23tik 25era eta martxoaren 9tik 11ra. Irteerak 200 euro inguru kostako dira, garraioa, ostatua, forfai eta aseguruia barne. Izenematea Aloña Mendi tabernan egin behar da, astelehen eta martitzenetan.

Aste Santuan, Frantziako Alpeetara joango dira apirilaren 6tik apirilaren 14ra.

### DEBAGOIENEAN

Hain urruti joateko asmorik ez duenak, baina, izango du aukera gure ibarreko mendietan elurraraz gozatzeko: aste bukaeran, jende mordo ibili da, eskiak hartu eta mendian gora eta behera.

### Eski irteerak

NOIZ	NORA	NOREKIN
<b>OTSAILA</b>		
2tik 4ra	Baqueira	Pol-Pol
	Formigal	Besaide
9tik 11ra	Baqueira	Pol-Pol
	Formigal	Besaide
	Luz Ardiden	Murruxio
16tik 18ra	Formigal	Besaide
23tik 25ra	Baqueira	Pol-Pol
	Formigal	Besaide
	Baqueira	Aloña Mendi

### MARTXOA

2tik 4ra	Formigal	Besaide
9tik 11ra	Formigal	Besaide
	Baqueira	Pol-Pol
	Baqueira	Aloña Mendi
16tik 18ra	Formigal	Besaide
23tik 25era	Formigal	Besaide
30etik 1era	Formigal	Besaide
	Candanchu	Arrola

### APIRILA

6tik 14ra	Val Thorens	Pol-Pol
	Deux Alpes	Aloña Mendi
	Tignes-Val	Besaide
	D'isere	



GORLA Domeka goizean, Gorlan eskiak ibili zen irudiko laguna.



#### **BIGAREN ERREGIONAL MAILA ETA EMAKUMEZKOEN TALDEA**

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Mikel Irizar, Nerea Madariaga, Ruben Arrondo, Maialen Hernandez, Nathan Olabarria, Olatz Larrañaga, Alvaro Macho, Oihana Iñurrategi, Iker Orgaz, Mireia Merarduraduna, Karlos Lasa (presidentea), Ibai Gaztelu (delegatua), Mikel Unanue (delegatua), Igor Larrañaga (nesken 2. entrenatzailea), Eneko Eguren (laguntzailea), Aitor Blanco (mutilen entrenatzailea), Iñurrategi, Garazi Larrea, Barrie John Olabarria, Maite Quintanilla, Humberto Solozabal, Miren Berraondo eta Ibon Leibar. Argazkian Eloy Crespo (nesken entrenatzailea) falta da.



# Futbol Taldea 06-07



ndizabal, Igor Uribesalgo, Maialen Alkorta, Pol Lopez de Subijana eta Sherezade Moreno. **Erdiko ilaran:** Mikel Gallastegi, Mirian Godoy, Julen Muguruza, Olatz Etxeberria, Jose Luis Beitia (nesken ilea), Javi Fernandez, Daiana Rico eta Jon Igartua. **Beheko ilaran:** Alaitz Menor, Ibai Romero, Leire Urgoitia, Asier Bolinaga, Mainer Birunbrales, Ander Muruamendiaraz, Itsaso Montero, Gor-



PREFERENTE MAILA &gt; HEMERETZIGARREN JARDUNALDIA

# Puntu banaketa, UDAREN eta Mondraren arteko derbian

UDA

1-1

MONDRA

**UDA** > Gaizka, Iñaki, Raul, Ruben, Arkaitz, Arenatza (Mikel, 38. min.), Orueta (Alain, 55. min.), Haritz (Julen, 87. min.), Arriaga (Gari-koitx, 80. min.), Iban eta Espinosa (Imanol, 56. min.).

**Mondra** > Ander, Loiti, Josu, Andoni, Laspiur, Ruben, Julen (Muxi, 74. min.), Keixi, Murua, Gotzon (Illart, 61. min.), eta Ekaina (Aranbarri, 87. min.).

**Epalea** > Etxarri jauna. David eta Pedro izan zituen laguntzaile.



ERASOA Josu erasora irteten eta Haritz baloia lapurtu nahian. JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Puntu bat lortu dugun arren, ez nago batere pozik egin dugun lanarekin"

Igor Gordobil >  
Mondrako entrenatzailea

"Emaiza nahiko justua izan dela uste dut; Mondrak merezitako berdinketa lortu du"

Igor Arenatza >  
UDako jokalaria

tu barik zutela lortu zuen UDak bere gola; hirugarren minutua zen. Orueta eskuinetik egindako erdiraketa buruz errematatu zuen Arriagak. Mondrako atezainak irteera txarra egin zuen.

Lehenengo zatian, Mondrak apenas egin zituen gol aukerak. UDak menderatu zuen hobeto tarte hura. Hala, atea zulatzeak aukera gehiago sortu zituen. Atsedenen aurretik, Iban Espinosak eta Haritz Igartuak aukera bana izan zuten, baina ez zuten asmatu. Hortaz, atsedenera Aretxabaletako taldea iritsi zen abantailarekin.

## MONDRA, HOBETO

Aldagelan, Gordobil entrenatzaileak emandako aholkuak entzun ondoren, Mondrak gol aukera gehiago sortu zituen. Hala, Iker Laspiurrek izan zuen berdinketaren gola egiteko aukera, falta jaurtiketa batean. Jon Muruak egindako bi jokalditan ere berdinketaren gola egiteko zorian egon ziren arrasatearrak.

Tartean, Aretxabaletako taldeak ere partidua erabakita uzteko aukerak izan zituen, batez ere, Igor Arriagak izandako bi aukeratan.

## GIRO BIKAINA

Ibarreko derbiko minutuek aurrera egin ahala, zelaian, jokalarien artean, eta harmailetan, zaleen artean, emozioa eta tentsioa nagusitzen joan ziren.

Partidua amaitzeko lau minutu falta zirela lortu zuen Mondrak hainbeste bilatu zuen saria: berdinketaren gola. Muxik eskuinetik egindako erdiraketa ondo errematatu zuen Jon Muruak. 86. minutuan lortutako golari esker, puntuak erdibanatu egin ziren Ibarra futbol zelaian.

## MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Denboraldiko laugarren derbia jokatu zen zapatuan Aretxabaletan, UDAREN eta Mondraren artean. Ondo baino hobeto elkar eza gutzen duten bi taldeen arteko partidua izanik, emozioa izan zen protagonista nagusia. Ez Mondrak, ezta UDak ere, ez zuten joko ona erakutsi. Hortaz, tentsioa egon zen azken unera arte; bai, behintzat, markagailuan zer gertatuko zen jakiteko.

Hala, bukaeran, puntuak banatu egin zituzten Ibarra futbol zelaian jokaturako lehiari. Bada, UDak 28 puntu ditu sailkapenean, eta Mondrak, 31.

Aste bukaeran, UDak eta Mondrak etxetik kanpo jokatu dute. Preferente mailako 20. jardunaldian, arrasatearrek Idiazabalaren jokatu dute, eta aretxabaletarrek, Hernanin.

## GOL AZKARRA

Eskualdeko derbia izanik, Arrasateko ikusle asko hurbildu zen Ibarra futbol zelaira. Zale batzuk oraindik futbol zelaian lekua har-

PREFERENTE MAILA &gt; 19. JARDUNALDIA

# Aukera gutxi eta lehia berdindua atzo Azkoagainen

Hotz egin arren, oñatiarrak hurbildu ziren Azkoagainera; azkoitiarrak ere ugari zeuden

## ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloñak eta Anaitasunak 1-1 berdindu zuten atzo Azkoagainen jokaturako lehia. Aukera gutxi-ko partidua izan zen. Etxekoen gola lehenengo zatiko 32. minutuan lortu zuen Jon Astigarragak, falta jaurtiketa bidez.

## ATSEDENAREN OSTEAN, GOLA

Bigarren zatian, indarberrituta zelairatu ziren azkoitiarrak. Bigarren minuturako, buruz, berdintzea lortu zuen Bastidak.

Aloñako jokalaria gogoz saiatu ziren, baina ez zuten bigarrena egiterik lortu.



ATEZAINA Gorka Otamendi atezain gaztea ondo aritu zen atzo. JOSETXO ARANTZABAL

## emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	42	19
2. Hernani	34	19
3. Berio	32	19
4. Anaitasuna	31	19
5. Mondra	31	19
6. Ordizia	29	19
7. UDA	28	19
8. Touring	27	19
9. Zestoa	27	19
10. Hondarribia	24	19
11. Trintxerpe	23	19
12. Aurrera	22	19
13. Aloña Mendi	22	19
14. Pasaia	20	19
15. Idiazabal	18	19
16. Mutriku	17	19
17. Martutene	16	19
18. Urola	15	19

## Emaitzak

Hernani-Pasaia	1-0
Hondarribia-Martutene	1-0
Ordizia-Urola	3-1
Aurrera-Mutriku	1-0
Zestoa-Touring	1-2
Aloña Mendi-Anaitasuna	1-1
Zarautz-Berio	1-1
Trintxerpe-Idiazabal	2-1
UDA-Mondra	1-1

## Hurrengoak

Hernani-UDA	
Pasaia-Hondarribia	
Martutene-Ordizia	
Urola-Aurrera	
Mutriku-Zestoa	
Touring-Aloña Mendi	
Anaitasuna-Zarautz	
Berio-Trintxerpe	
Idiazabal-Mondra	

## BESTELAKOAK

### LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Eibartarrak	2-2
---------------------	-----

### BIGARREN ERREGIONALA

BTLS-Soraluze	3-2
Urki-UDA	b.b
Antzuola-Elgeta	b.b
Mondra-ZestoaB	6-2

### EMAKUMEZKOAK

BTLS	atsedena
Mondra	atsedena
Aloña Mendi	atsedena
Arizmendi UDA	atsedena

### OHOREZKO GAZTE MAILA (IGOERA)

Elgoibar-Mondra	3-0
Aloña Mendi-UDA	b.b

### OHOREZKO GAZTEAK (KOPA ETA JAITSIERA)

Ostadar-Bergara	2-2
-----------------	-----

### LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK (IGOERA)

UDA Arizmendi-Ekintza	0-0
Ikasberri-Arrasate	1-2

### OHOREZKO KADETEAK (IGOERA)

UDA Arizmendi-Real Union	2-0
--------------------------	-----

### OHOREZKO KADETEAK (KOPA ETA JAITSIERA)

Sanse-Aloña Mendi	0-2
Arrasate-Aurrera	1-0

### OHOREZKO INFANTILAK (TXAPELDUNEN FASEA)

Eibar-UDA Arizmendi	b.b
---------------------	-----

### OHOREZKO INFANTILAK (KOPA)

Aurrera-Arrasate	4-3
Aloña Mendi-Real Union	1-2

EUSKADIKO TXAPELKETA > ITURRIPEN JOKATU ZEN PARTIDUA

# Penalti bidez eta partidua amaituta zegoela galdu zuen Ford Mugarrik

Partidu amaiera adierazten zuen txirrinarekin batera adierazi zuten epaileek Askartzaren aldeko penaltia; Leioako taldeak ez zuen hutsik egin eta garaipena eskuratu zuen

FORD MUGARRI

## 28-29

ASKARTZA

**Ford Mugarri** > Trufo, Asier, Jonan (2), Eneko, Peio, Arkaitz (7), Rafa (1), Aitor (1), Gari (2), Iker, Andoni, Nestor (1), Kepa (7) eta Otegi (7).

**Askartza** > Txabarri (8), Barturen (2), Otxoa (3), Maros, Gonzalez (1), Boroegarai (3), Gartzia (1), Asensio, Quiroga (6), Nieva (1), Mardaras, Alvarez (4) eta Ortega.

**Golak** > Atsedenean, 14-13.



DEFENTSA Partiduko tarte batzuetan, defentsa gogorra egin zuten bi taldeek.

JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Denboraz kanpo erabaki zen zapatuan Ford Mugarrik eta Askartzak Iturripen jokatutako partidua. Partidua bukatuta zegoela, azken jokaldian, epaileek penalti eztabaidagarria adierazi zuten Leioako taldearen alde.

Ford Mugarriko jokalaria eta entrenatzaileek biziki protestatu zuten epaileek hartutako erabakia. Bada, Askartza taldeko

jokalaria ez zuen hutsik egin eta irabazi egin zuten.

Hortaz, bolada txarrean jarraitzen dute Beñardo Balerdiren mutilek. Izan ere, Ford Mugarrik ligako azken lau partiduetan galdu ditu.

PARTIDU PAREKATUA

Eztabaidarekin erabaki zen partidua irabaztea garrantzitsua zen etxekoendako, eta baita Leioako taldearendako ere. Horregatik, partidua oso parekatu izan zela aipatu behar da. Markagailuak

gorabehera asko izan zituen; hala, tarte batzuetan, arrasatearrek izan zuten abantaila markagailuan, eta beste batzuetan, bizkaitarrek. Edozelan ere, gehienezko errenta bi golekoa izan zen partidua osoan.

Partidua amaitzeko zazpi minutu falta zirenean, Ford Mugarrik bi goleko errenta zuen (25-23), baina Askartzak berehala berdindu zuen emaitza. Amaieran, penalti eztabaidagarriarekin erabaki zen partidua.

GAZTE MAILA, UDABERRI SARIA > 2. JARDUNALDIA

## Samur nagusitu ziren etxeko neskek

Udaberri sarian jokatu dituzten bi partiduetan garaipena lortu dute Aloñako neskek

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloña Mendiko gazte mailako neskek uste baino samurrago nagusitu ziren zapatuan Ereintzaren aurka (24-10).

KONTRAERASO ASKO

Aloña behar baino jokalaria gutxiagorekin joan zen partidura: bederatzi jokalaria eta bi atezain. Horrela, jokalaria guztiek izan zuten jokatzeko aukera.

Manu, taldeko entrenatzailea, pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: "Astean zehar

entrenatu ditugun jokaldiak egin ditugu, eta ondo atera zaizkigu".

Defentsan ondo aritu ziren Aloñako neskek; presioa egin zuten, eta baloi asko lapurtu zituzten. Ondorioz, kontraerasoan gol asko sartu zituzten.

KADETEAK GALDU

Verkol Aloñak 20-25 galdu zuen Kukullagaren aurka. Euskadiko txapelketan ari diren neskek partidu eskasa egin zuten; defentsan txarto eta erasoan ideia argirik gabe aritu ziren.



ERASOA Kadete mailako Ane Herrero, jaurtiketa egiteko prest.

JOSETXO ARANTZABAL

### emaitzak

#### MAILAZ MAILA

##### BIGAREN MAILA NAZIONALA

Ford Mugarri-Askartza UPV 28-29

##### EUSKADIKO GOREN MAILA

Cocinas Aiala-Verkol Aloña 19-25

##### LEHENENGO TERRITORIALA

Hegialde-Bergara 24-30

Urola-Arrasate 30-29

##### GAZTE MUTILAK

La Salle-Aloña Mendi 21-26

##### GAZTE NESKAK (UDABERRI SARIA)

Verkol Aloña-Ereintza 24-10

##### KADETE MUTILAK

Euskalduna-Aloña Mendi 41-39

Goierri-Gatz Museoa Jakion 28-28

##### EUSKADIKO TXAPELKETA

##### (KADETE NESKAK)

Verkol Aloña-Kukullaga 20-25

##### KADETE NESKAK

##### (UDABERRI SARIA)

Bera Bera-Arrasate 34-6

GIPUZKOAKO LIGA &gt; ESKORIATZAKO SENIOR MAILAKO NESKAK

# Saskiratze gutxiko lehia nagusitu ziren

Datorren astean, Lasarte Oriaren aurka neurtuko ditu indarrak Txema Sanchezek zuzentzen duen taldeak. Orain, hirugarren dira sailkapenean

ESKORIATZA

## 40-23

OIARSO

**Eskoriatza** > Calderon (6), Laborda (2), Gomez (5), Caceres, Baltzategi (1), Alarcia (6), Usabiega (6), Heriz (2), Exposito (12), Soriano, Etxeberria eta Serrano.

**Oiarso** > Gonzalez (2), Roteta (4), Rodriguez, Hernandez, Idiazabal (5), Gonzalez (8), Lanchas, Montero (2), Red Santiago, Olaizola (2), Elustondo eta Marquez.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 10-8. Bigarren laurdena: 18-12. Hirugarren laurdena: 27-21. Laugarren laurdena: 40-23.

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; OÑATI

Bigarren itzulia modu onean hasi dute Eskoriatzako neskek. Zapatuan, etxekoen aurrean, 40-23 nagusitu ziren Ooreretako Oiarso taldearen aurka.

Partidua hasieratik jarri zitzaizen alde eskoriatzarrei; denbora guztian, markagailuan aurretik izan ziren, baina inola-

ko abantailarik hartu gabe. Hirugarren laurdenera arte, nahiko parekatua izan zen lehia. Azkenean, baina, etxekoen presioak eragina izan zuen eta Ooreretako neskek behera egin zuten. Ondorioz, 17 puntuko aldea atera zion Eskoriatzako Oiarsoi.

BANAKAKO DEFENTSA

Etxeko taldeak banakako defentsa egin zuen norgehiagoka guztian. Nahiko ondo aritu ziren, batez ere kantzaren erdialdean, baina taula azpian larriago ibili ziren. Elkarri laguntza ematea falta izan zitzaizen eskoriatzarrei.

Lehenengo laurdena 10-8 amaitu zen. Bigarren laurdenera bigarren minuturako, 6-2ko partziala egin zuen Txema Sanchezek zuzentzen duen taldeak. Hala, markagailuko aldea handitzea lortu zuten Eskoriatzakoek.

Saskiratze gutxiko partidua izan zen zapatukoa: Eskoriatzak 40 puntu besterik ez zituen lortu, eta oraingoz, aurtengo denboraldiko marka kaxkarrena izan zen Eskoriatzakoek zapatuan etxean egin zutena.



PRESIOA Ainhoa Alarciak baloi asko lapurtu zituen.

JOSETXO ARANTZABAL

TAULA AZPIAN, GAIZKI

Hain saskiratze gutxi izanaren errua taula azpiko jaurtiketek izan zuten. Etxekoak ez ziren fin aritu, eta jaurtiketa asko huts egin zituzten, batez ere jaurtiketa errazak. Hala, kontraeraso eta jaurtiketa libre asko ezerezean geratu ziren. Gainera, partidua guztian hiruko saskiratze bakarra egon zen, Carmen Gomezek egindakoa. Gauzak horrela, ondo-

rengoak izan ziren laurdenetako partzialak: 10-8, 8-4, 9-9 eta 13-2.

Azken laurdenean, kantxa erdian egindako presioaren ondorioz, baloi asko lapurtu zituen Eskoriatzak; aipatzekoa, Ainhoa Alarciak egindako lana. Zapatuko garaipenarekin, Eskoriatzak 22 puntu ditu, eta hirugarren postuari eusten dio. Datorren astean, Lasartera egingo dute bisita Eskoriatzako neskek.

GIPUZKOAKO LIGA, IGOERA FASEA &gt; SENIOR MAILAKO MUTILAK

# Kostata eskuratu zuen garaipena Bergarako Candyk

Igoera faseko bosgarren jardunaldia jokatu zuen zapatuan Labegaraletan

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Candy eta Kevian Sport taldeek lehia gogorra eta parekatua jokatu zuten Labegaraletan.

Etxeko taldeari kosta egin zitzaion partidua erritmoa hartzea; hala, lehenengo laurdenean, 12 puntu atzetik ziren bergararrak. Gero, baina, jokoaren intentsitatea zerbait igo eta markagailuan txukuntzea lortu zuten bergararrek (58-52).

Banakako defentsa egin zuen etxeko taldeak; ondorioz, taula azpian zuloak utzi zituzten, eta aurkariak zulo horiek aprobetxatu zituzten barneratzeak egin eta baloia saskian sartzeko.

ERASOAN, POLIKI

Lehenengo laurdenean izan ezik, beste partzial guztiak etxeko taldearen aldekoak izan ziren. Hauek izan ziren emaitzak: 12-24, 34-37, 46-48 eta 58-52.

Erasoan mantso aritu ziren bi taldeak; baloia mugituzerakoan, poliki aritu ziren eta, ondorioz, eraso luzeak egin zituzten. Biek ala biek banakako defentsa egin zuten.



BALOIA MUGITU Jon Arteaga, jokoaren gidaritzak lanak egiten.

JOSETXO ARANTZABAL

IGOERA FASEA

Candy igoera fasea jokatzeko aritu da. Orain arte, bost norgehiagokak jokatu dituzte bergararrek; horietatik, hiru irabazi eta bi galdu dituzte. "Gure helburua

ahalik eta goien gelditzea da", adierazi digu Jesus Moraisek, taldeko arduradunak.

Datorren astean, Donostiako Iraeta taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak bergararrek.

&gt; LEHENENGO MAILA

## Azken laurdenean galdu zuten

CONSMETAL

# 95-88

MUGARRI ALKESA

Hirugarren tartean, hogeituzen puntu errenta izan zuen Mugarri Alkesak

M.B. &gt; BERGARA

Mugarri Alkesako jokalarik eta arduradunek oraindik ez dute sinisten zapatuan, Iruñean, Consmetal liderraren aurka galdu izana. "Sinestezina izan da. Azken bi urteotako partidurik borobilena jokatu dugu, baina azken laurdenean oso eskasa izan da gure aldetik, eta 36-14ko partziala egin digute", adierazi zigun Mugarri Alkesako jokalarik Jagoba Gamarrak.

ABANTAILA GALDU

Gorka Zurututzaren taldeak 20 puntuko errenta izan zuen hirugarren laurdenean. Norgehiagokako azken tartean hasieran, 15 puntu ziren aurretik arrasatearrak, 59-74. Bada, Consmetal taldeak saskiratze asko egin zituen azken tartean, eta puntu bateko abantaila hartu zuen markagailuan, amaitzeko 40 segundo falta zirela.

Mugarri Alkesak azken ahalegina egin zuen garaipena eskuratzeko, baina Arrasateko taldeak eskutan izandako partidua galdu egin zuten.

PARTIDU GARRANTZITSUA

Mugarri Alkesak zapatuan jokatu du norgehiagoka inportantea. Bigarren postua eskuratzeko, eurekin lehia egongo den taldearen bisita jasoko du Iturripen. Gasteizko TAU taldearen filialaren aurka jokatu dute arrasatearrek, Fundacion Vasconianaren aurka.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Consmetal-Mugarri Alkesa 95-88

SENIOR MUTILAK

Candy-Kevian Sport 58-52  
Irun Basket-Aloña Mendi 67-103

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Oiarso 40-23

BERGARA

# "Futbola gustatzen zaigu gehien, baina gaur gustura ibili gara eskubaloian"

**12. JARDUNALDIA** Zapatu goizean elkartu ziren Labegaraieta kiroldegian benjamin mailako neska-mutikoak 12. jardunaldia jokatzeko

**LAU ZATI** Oraingo honetan, eskubaloiko partiduak jokatu zituzten, eta hamar minutuko lau zati izan zituen norgehiagoka bakoitzak

**GURASOAK** Partiduetan parte hartzen duten jokalarien gurasoak dira haien zalerik amorratuena; zapatuan ere harmailetan egon ziren

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**

Zapatu goizeko hotzari aurre eginenez, Bergarako Labegaraieta kiroldegira hurbildu ginen benjamin mailako eskubaloia partiduak ikustera. 10:00etarako iragarrita zeuden partiduak hasi aurretik iritsi ginen, eta hantxe hartu genuen lehen ezustekoa: zapatu goizean Antzuolako bi taldeek jokatu beharreko bi partidu bertan behera geratu ziren. Izotzarenagatik ez ziren partidura agertu.

Hala, Labegaraietara hurbildu ziren lau taldeekin hitz egiteko aukera zabala izan genuen. Eta ondorio nagusi bat atera genuen haiekin hitz egin ondoren: gazteen artean ere, futbola da izar nagusia. Taldekako kirolak gustatzen zaizkie gehien, "baina bereziki futbola atsegin dugu", esan ziguten.

**ESKUBALDIA**

Zapatuan, baina, eskubaloian jokatzen ikusi genituen. Kiroldegiko kantxaren zabalera egokitu zuten jokorako zelaia. Hala, talde bakoitzak bost jokalarirekin jokatu zuten. Partiduek 40 minutuko iraupena izan zuten, 10 minutuko lau tarte jokatu zituzten-eta. "

Lehenengo lehia, Doraemon ligako Aranzadi 2 eta Elgeta taldeek neurtu zituzten indarrak. Bigarren partiduko taldeak Pokemon ligakoak dira: Mariaren Lagundia eta San Martin A taldeak, hain zuzen ere.

Zapatuan, Labegaraieta kiroldegian jokatu ziren partiduak denboraldiaren hamabigarren jardunaldikoak ziren.



**Aranzadi 2.** Josu, Aitor, Alex, Jon, Unai, Andoni, Ibon, Asier eta Eneko daude argazkian.



**Elgeta.** Ibane, Gaizka, Peio, Jon, Jone, Nahia, Ane eta Mikel dira Elgeta taldeko jokalaria.



**San Martin A.** Mikel, Maria, Xabier, Asier, Biken, Manex, Marina eta Javi daude argazkian.



**Mariaren Lagundia.** Josuk, Iñakik, Ibaik, Jonek, Andonik, Julenek, Ikerrek, Aitorrek eta Ibonek osatzen dute taldea.

TALDEKO EDO BAKARKAKO KIROLAK GUSTATZEN ZAIZKIZUE?



**Aitor**  
Elgeta

"Taldekako kirolak gustatzen zaizkit gehiago, giro hobea izaten dugu-eta taldean", esan zigun Aitorrek. Aukeraketa egiteko orduan, ez zuten zalantzarik izan: "Futbola aukeratzeko dut".



**Etor eta Ane**  
Elgeta

"Orokorrean, oso gustura etortzen gara. Gu Elgetatik geroz eta, gaur hotza egiten duen arren, pozik etorri gara", esan zigun argazkiko bikoteak. Taldeko kirolletan oso ondo moldatzen direla esan ziguten; "eskubaloian jokatzea gustatzen zaigu", gehitu zuten.



**Ibane eta Nahia**  
Elgeta

Elgeta taldeko argazkiko bi neskek taldeko kirolak aukeratu zituzten, zalantza barik: "Eskubaloian jokatzea oso gustura etortzen gara. Futbola ere gustuko dugu", adierazi zituzten. Irristaketa egin dutela ere kontatu zituzten.




**Josu eta Unai**  
Aranzadi 2

Partidua hasi aurretik, berotzen ikusi genituen. Eta eskubaloian jokatu behar bazuten ere, futboleko aritu ziren. "Guretako, futbola da kirol politena, baina beste kirol batzuk ere egiten ditugu: areto futbola, eskubaloia, irristaketa, pilota...", esan zuten.



**Ibon eta Aitor**  
Aranzadi 2

"Taldekako kirolen artean aukeratu behar badugu, futbolarekin geratzen gara", esan ziguten oso ziur argazkiko mutikoei. Baina bakarkako kirolak ere atsegin dituztela aipatu zituzten: "Pilotan ere jokatzen dugu, batzuetan bana-bana, eta beste batzuetan, binaka".



**Laster  
GIDA 2007  
zure etxean!**

Gida osatuna,  
erabilgarriena eta berriena.

**Zure herriko  
denda eta enpresen  
telefonoen gida.**

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **IRLANDARRAK**  
Folk kontzertua bi musikari irlandarrekin Eskoriatzan > 24



> **RUPER**  
'Memoriaren mapan' diskoa aurkeztu zuen Arrasaten > 26

> **IZARO APERRIBAI**  
Musika da Izaro Aperribairen zaletasun nagusia eta oraingo aste bukaera kontzertu batean eta disko jartzaile lanetan pasatu du Bilbon > 27



Amaia Cid > Antzezlea

## "Imajinatu ere ezin nuen egin iaz orain obra baten egongo nintzenik"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Egubakoitzean debutatu zuen Amaia Cidek haren jaioterrian, Oñatin, aktore profesional moduan. Iker Ortiz de Zarate gasteiztarrak zuzendutako Katarbeltz taldeko *Las azarosas andanzas de dos pícaras pellejas* antzezlanean hartzen du parte 22 urteko oñatiarrak. Antzezpena ikasten dabil Amaia Cid Gasteizko Ortzai eskolan.

**Gogorra izan zen egubakoitze-ko debuta?**

Ez, oso ondo joan zen guztia. Ez zitzaidan arraroa egin, ez da eta familia eta lagunaren aurrean antzeztan dudaren lehen aldia. Oso pozik egon nintzen. Goizean jeiki naizenean, hala ere, pentsatu dut: zer egin nuen bart? Ez nintzen gogoratzen.

**Urduri zeundelako?**

Gasteizko estreinaldian, askoz ere urduriago nengo. Ahotsa oso gaizki neukan orduan eta, horregatik, urduri samar nengo; Oñatin, pitin bat besterik ez. Hala ere, esperientziak erakutsi dit, neurri baten, urduritasuna ere ona dela. Oñatikoa atara da, testuan arazo barik. Aurreko saioetan, gehiago zen proba bat, baina, azken honetan, gauzak behar bezala zeuden.

**Harrera ona izan du antzezlana?**

Orokorrean, pozik nago, jendeak barre egiten du, dibertigarria da eta lana. Kontua da antzezlana neurtitzetan dagoela idatzia eta horregatik agian zailxeagoa izan daiteke jarraitzeko, baina jendeak gustura hartu du.

**Oñatin aurkeztutakoa zuen lehen "obra handia" dela esan genezake?**

Modu profesionalean, nire debuta izan da. Aurretik, ikusle kopuru mugatuko saio txikitxo-

ak egin izan ditut, *In Media Res* modukoak, edo Aratusteetako pregoian ere hartu nuen parte... gauza txiki asko egin izan dut.

**Hala ere, antzerki munduan ez daramazu denbora larregi ere, ezta?**

Orain urtebete hasi nintzen interpretazioa egiten. Iaz izan nuen Ortzai eskolaren berri, eta proba egin eta gustatu egin zitzaidan. Oso gustura nabil, oso jende jatorrarekin. Ea hemendik aurrera aukera gehiago ere dauzkan!

**Konplikatu izan da lana gertatzea?**

Lan handia da, hori egia da, baina ez da lan bereziki zaila izan. Gauza asko ikasi ditut taldekideekin, eta asko lagundu didate. Ikerrek ere oso ondo ermaten gaitu. Gainera, ikaslea naizen neurrian, gauzak buruz ikasteko arazorik ez daukat.

**Aukera hau benetan antzezpene maite duzun ikusteko proba izango zen, ezta?**

Baliteke. Aurretik ere eginak dauzkat gauzatxoak, eta argi neukan. Lan hau handiagoa izanda ere, ez zait arraroa egin, eta asko gustatu zait. Jarraitzea da nire nahia. Oso esperientzia polita da. Nik ezusteko handia hartu nuen Ikerrek obrarako deitu ninduean. Orain dela urtebete, ez nuen imajinatu ere egiten orain obra bat egiten egongo nintzenik.

**Antzerkiaz hitz egin dugu bakarrik, baina antzezpene oso mundu zabala da.**

Telebistak, adibidez, ez nau bereziki erakartzen. Zinemak, bai. Antzerkia, hala ere, beste gauza bat da, ikusleen aurrean agertu, txaloak entzun... bizi izan barik azal ezin daitekeen zerbaite da, oso polita.



DEBUTA Oñatiko Santa Ana aretoan egin zuen debuta Amaia Cidek egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

## Harrera ona izan zuen komedia pikaroak Oñatin

Iker Ortiz de Zarate aktoreak idatzi eta zuzendutako lana da *Las azarosas andanzas de dos pícaras pellejas*. Neurtitzetan idatzitako komedia pikarok da Katarbeltz taldearen hori. Aktore profesionalak eta Ortzai eskolako ikasleek hartzen dute parte, eta XVIII. mendeko Frantziako gortean girotzen da komedia.

Barre politik antzuzen ziren Oñatiko saioan, eta harrera beroa izan zuen lanak. Oñatiren ostean, Dulantzi eta Amurrion egingo dute berriz ere antzezlana datozen asteetan.



Amaia Cid eta Jesus Fernandez antzezlanean.

JOSETXO ARANTZABAL



INGURUA EZAGUTZEN DUTE McFarland eta O'Neill (altuenak) 2001ean ere egon ziren Antzuolan bisitan.

ARTXIBOA

Aitzorrotz kultur taldeak antolatuta, irlandar kutsua izango du asteak Eskoriatzan. Girotzen hasteko, film emanaldia dago etzi Inkernun

ASTE IRLANDARRA ESKORIATZAN &gt; KONZERTUA ETA FILM EMANALDIA ASTEON

## Folk kontzertua zapatuan Inkernun Brick McFarlandekin

**JON BEREZIBAR > ESKORIATZA**  
Zapatuan, otsailaren 3an, irlandar folk kontzertua egongo da Eskoriatzako Inkernu tabernan. Hain zuzen ere, Bick McFarland eta Terry O'Neill musikariak egongo dira Inkernu tabernan jotzen, Euskal Herritik zehar asteotan egingo duten kontzertu bira txiki eta berezi baten barruan.

Musikari izateaz gain, Irlandan zeresan handiko pertsonak dira Eskoriatzara etorriko diren bi lagunak. Hala, McFarland Sinn Féin alderdiko arduradunetako bat da. Gainera, Bobby Sands eta beste batzuk hil ziren gose greba ezagunean, haren alboan zen McFarland, eta Long Keskek espetxeko IRAko presoekin komandante ere izan zen. Hitzordua dato-

ren zapatuan izango da, Inkernu tabernan, 22:30an. Girotzen joateko, eguaztenean *En el nombre del hijo* filma emango dute Inkernun bertan 22:00an.

**EKITALDI GEHIAGO ESKORIATZAN**  
Otsailerako kultur egitaraua ere ezagutarazi du Eskoriatzako Udalak. Hala, Santa Ageda ospatuko dute herriko kintoek domekan

eta, ohi bezala, astelehenean dantza egingo dute Herriko plazan. Datorren astean ere, egubakoitzean, Carlos Mò komiko kataluniar ezagunak saioa egingo du Unibertsitatean.

Otsaileko egitarauan ere garrantzitsuak Aratusteak izango dira. Hilaren 15ean hasiko dira, Urdelardero egunarekin, hain zuzen ere.

PRENTSA &gt; ARGIA SARIAK 2007

## 'Wazemank' saioa saritu dute aurten

Telebista saria jaso du Mikel Laskurain aktore bergararra partaiden de lantaldeak

**J.B. > BERGARA**  
Atzo bertan ospatu zuten sagardotegian Mikel Laskurain aktore bergararrak eta gainontzeko *Wazemank*-eko kideek aurtengo telebistako Argia Saria.

Egubakoitz arratsaldean banatu ziren Lasarten 2007 Argia Saria, eta telebistako aipamena Euskal Telebistako *Wazemank* umore saioak jaso du. Taldean

Mikel Laskurain Bergarako aktorea dago.

### EPAIMAHAIK ESANA

Argia Sarietako epaimahaiak "telebistan aspaldi ikusitako umore saiorik dinamikoa" dela esan du. "Edonor zein euskara bera karikatuzatzen" saioak duen ahalmena baloratu du, besteak beste, epaimahaiak.

TALDEKOA *Wazemank* osatzen duten antzezle taldearen kide da Laskurain. ARTXIBOA

MENDEURRENA

## Loramendi jaio zela 100 urte bete dira

Gazte hil arren, gerra aurreko poesiaren suspertzailetako bat izan zen

J.B. &gt; ARRASATE

Zapatuan bete ziren ehun urte Arrasateko Bedoña auzoko Mendibitzu baserrian Joan Arana Ezpeleta, *Loramendi*, jaio zela. Gerra aurreko euskal olerkigintzaren loraldiko poeta aipagarrien artean dago Loramendi, hain zuzen ere, *Lizardi*, *Lauaxeta*, *Orix*e eta *Jautarkol* ezagunekin batera.

GAZTE HIL

Filosofia ikasketak amaitu eta lehen, meza eman baino egun gutxi batzuk lehenago, hil zen, 1933an, Donostian. Adituek haren lan bi gorai-patzen dituzte: *Barruntza leyoan* eta *Arrantzalien arrats-otoitza*. 1960an jaso zituen furre Aitak haren lan guztiak bilduma baten.

&gt; PINTURA

### Josune Egurenen lanak Nahikarin, hil amaierara arte

Urtarril amaierara arte egongo dira Josune Eguren margolari arrasatearraren 11 lan erakusgai Bergarako Nahikari tabernan.


Paperean egindako marrazkiak dira erakusketan jasotzen direnak, haren ibilbideko unean erakusle. Marrazki-lan koloretsuak dira, material arruntak erabiliz egindakoak (papera, urmargoak, argizaria, kolorezko arkatzak...), guztiak formatu txikian edo ertainean.

&gt; KORRIKA 15


### 'Gu ta gutarrak' bertso ikuskizuna egingo dute Arrasaten

Eguaztenean aurkeztu zuten Durangon Korrika 15erako ekitaldi kulturalen agenda. Ibarrean, Arrasaten besterik ez dituzte saioak egingo, eta *Gu ta gutarrak* bertso eta musika muntaia egongo da ikusgai martxoaren 4an Amaia Antzokian. Igor Elortza, Unai Iturriaga (biak bertsoetan) eta Josu Zabala, Aitor Rubio eta Alex Ruiz de Azua (musikaz arduratuko direnak) etorriko dira.





# Jatetxe Gida



## Azpetxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan, afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA  
943 79 24 58 [www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan, itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE  
943 79 85 33

### Txinatar jatetxea

### Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan, itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA  
943 71 49 52

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan, itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA  
943 79 20 67 / 943 79 49 41

### Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan, itxita**



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI  
943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Domeketan, itxita**

KONTZERTUA &gt; SARRIONAINDIAREN HITZETAN OINARRITZEN DIRA ABESTI BERRIAK

# Memoriaren mapak akustikoki eta leuntasunez zabaldu zituen Ruperrek

Disko berria aurkeztu zuen oñatiarrak zapatu gauean Arrasateko Amaia antzokian

Gertukoa eta epela izan zen ikuskizuna, modu soil baina hunkigarrian egina

AINARA PEREZ &gt; ARRASATE

Formatu txikiko ikuskizun baterako, areto handiegia aukeratu zuen beharbada Ruper Ordorikak *Memoriaren Mapan* disko berria aurkezteko. Sakona eta biluzia da Ruperren azken lana, eta kantuetarako Jon Piris kontrabaxu-jotzailearen laguntza besterik ez zuen izan oñatiarrak. Konpainia, halere, Sarrionandiaren hitzek marraztutako lur eta ur sakonetara bidaiatzeko. Ia ordu eta erdiko bidaia goxo eta intimista izan zen, planteamendu akustikoeak dakarten epeltasunarekin. Zer esanik ez, ikusleek bidaiatzeko gonbitea gustura hartu eta berehala barneratu zirela aipatutako memoriaren mapetan; jendeak isilik eta adi-adi entzun zituen Sarrionandiaren istorio eta gogoetak.



AKUSTIKOA Gitarra akustikoeekin lagundu zituen abestiak Ruperrek zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

Alor musikalean, gitarra akustikoa erabili zuen Ruperrek ia kontzertu osoan. Bukaerako bisetan, baina, gitarra elektrikoa soinean atera zen oñatiarra, gaua-

ri amaiera biziagoa emanez. Era berean, benetan aipagarria izan zen Pirisen maisutasuna, kontrabaxua bai hatzamarrekin zein arkuarekin bikain joaz. Aipaga-

rriak ere izan ziren Javi Ulliaren eszenografia eta argiztapen lana, eta soinuaz, anaia, Jonan Ordorika, arduratu zen. Familia eta lagunak, gainera, ez zitzaizkion

falta Amaia antzokian Ruperri, gertutik izan zituen eta bikoteki-dea eta lagunak, eta Oñatiko erre-presentazio mardulak ere ez zuen hutsik egin. Ruperrek jarraitzaile fin eta fidelak ditu, haren musika preziatu eta jarraitzen dutenak, nahiz eta oraingoa ez den izan haren zuzenkorik biziena. Formatu akustikoan, hala ere, ederto defendatzen da Ruper.

Ohikoa izaten den moduan, disko berrian oinarritu zuen emaldia, baina, espero zitekeen moduan, ez zituen alde batera utzi guztion gogoan dauden abesti klasikoak: *Martin Larralde*, *Zaindu maite duzuna...* eta benetan hunkigarriak izan ziren *Aspaldian* edo *Ene Begiek*. Beterik abesti horiei ere, disko berriko tonuarekin bat datorren jantzi akustikoa egin zien Ruperrek, eta emaitza txukuna izan zen. Bera ere pozik ikusi genuen ohol-tza gainean: komunikatibo, txantxetarako gogoekin eta ikusleek bezain beste gozatuz, kontzertu gertukoa eta epela egin zuen, aukian geldi eta gozatzen egotekoa. Gutxiago ere ezin zitekeen espero. Haren ahotik ere entzun ziren abesti askoren azalpenak eta haien inguruko anekdota eta bizi-pen politak.

Jarrita eta gustura entzuteko kontzertua izan zen, inondik inora. Plan ezin hobea kaleko hotzari aurre egiteko.

KONTZERTUA &gt; SHARON STONER ETA NEUBAT ARRASATEN

# Indarrez eta grinaz egurtu zuten aretoa barikuan

Neubatek mailari ondo eutsi bazion ere, egubakoitzekoan Sharonekoek ez zuten parekorik izan, eta aretoa irentsi zuten

JOKIN MUNARRIZ &gt; ARRASATE

Euskal rock eta stonerraren munduan tinkoen dabilzan bi taldeak izan genituen egubakoitzekoan Arrasaten: Neubat eta Sharon Stoner, aurrez aurre. Espero zitekeen moduan, indarra, sendotasuna eta gitarra riffetan oinarritutako danbatekoak izan ziren nagusi 3.60 aretoan. Sharon Stonerrekoak, formari eutsiz eta gero eta hobeak direla frogatuz, eta Neubatekoak, taldearen ibilbidea finkatzen duen disko berria aurkeztuz, stonerra oraindik agortu barik dagoen generoa dela erakutsi zuten. Talde gazteak eta energiak beteak dira, eta gogor eman zuten egurra egubakoitz gauean.

Gasteiztarrek hasi ziren. Disko berria aurkeztu zuten eta, sekulako kontzertua egin barik,

maila eta gogo nahikoarekin igo ziren Arrasateko oholtzara. Taldearen soinua aberastu eta planteamendua osatu dute, eta kontzertua ez zen makala izan. Gaua bereganatzen, baina, Sharon Stonerrekoak izan ziren trebeak, zalantzarik gabe.

HUTS EGIN GABE, TINKO

Grina ikaragarria daukate txantxikuek, eta areto osoa irenste-ko moduko gosez atera ziren. Ezagunak dira hirukoaren zuzeneko bizi eta indartsuak, eta egubakoitzekoan ez zuten neke amiñi bat bera ere erakutsi. Bejon deilela! Eszenatokian goiari eutsiz, danbatekoz jositako makina ikaragarria da haien zuzeneko proposamena. Hori da euren elementua, eta ez zuten huts egin orduan ere.



NEUBAT Disko berriarekin etorri ziren Arrasatera gasteiztarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

ASTEBURUA...

## Izaro Aperribairekin



IRATI AGIRREAZALDEGI

# 'Elvis Caino': Rock-and-roll musika eta Athletic zaletasuna, bat eginda

Hilabete behin Bilbon jardungo du disko jartzaile lanetan; zapatukoa izan da lehena

Athletic zalea izanik, domekako derbia Bilboko alde zaharreko taberna batean ikusi zuen telebistaz

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Musika da Izaro Aperribai bergararren asteburuaren ardatza: kontzertuak, tabernetako dantza saioak, disko-jartzeak... Aisialdirako, zinema ere atsegin du, eta baita kirola ere; baina ikusteko.

Ohiko asteburua kontzertuen bueltan antolatzen du: "Merezi duen kontzerturik bada, joaten naiz. Rock-and-roll-a dut gustuko, eta Bergaran ez dago aukerarik, txiki geratu zait; beraz, Bilbora alde egiten dut. Jam-en ez dut gustuko kontzerturik. Inguruan, Arrasateko 3.60 aretora joan izan naiz, eta Gasteizen bada areto bat astero talde bat ekartzen duena. Baina gehienetan, Bilbora noa".

Gero, lagunekin irteten da: "Rock-and-roll-a ipintzen duten tabernetara joaten naiz dantzara". Berak bezalaxe, musika eta dantza gustukoa duten lagunekin joaten da gehienetan: "Saiatzen naiz betiko koadrilako lagunak konbentzitzen kontzertuetarako, eta batzuetan, etortzen dira".

**KONTZERTUA ETA JAIA BILBON**  
Asteburu honetan ere musikarekin izan du hitzordua Izarok. Egubakoitzean, Redd Kross talde esta-

tubatuarra entzutera joan zen Bilbora, Santa Ana 27 aretora. "Iaz Gasteizko Azkena Rock Festivalen jo zuten eta onak dira", dio.

Zapatuan, disko-jartzaile lanetan jardun du goizaldean, *Elvis Caino* izenarekin, Muelle Marzanako Le Club tabernan. "Bergarako gazetxean pare bat aldiz jardun dut, eta hemen, asmoa da hilean behin jardutea. Disko klasikoak jartzen ditut: soul, rhythm-and-blues, pop,

rock-and-roll... 80ko hamarkadara artekoak, sustraidun musika, dantzagarria. Gustukoa dut jendeari dantza eginaraztea".

Aurrez, ordea, lagun artean jaia egin zuten Bilbon bizi den Bergarako lagun baten etxean: "Maskara jaia egin genuen etxean 15-20 lagunek. Irudimena pixka bat landu eta zerbait afaldu, eta dantzan jai bat egiteko aitzakia polita da maskarena".

### **DOMEKAN, FUTBOLA**

Egubakoitz eta zapatua jai giroan eman ostean, domeka lasai antzean pasatzen du Izarok. "Domeka arratsaldeetan kalean ez da ezer egoten. Ni neu Athletic zalea izanik, domeketan, batzuetan, Athletic-en partidua ikusten dut telebistaz, edo etxean, irratian, ere entzuten dut. Asteon derbia izanik, derrigor ikusi behar partidua! Bertara ez naiz joan, baina telebistaz ikusi dut Bilbon, Somera kaleko taberna batean. Nik beti esan izan dut, futbolzalea baino Athletic zalea naizela, baina ez naiz zale sutsu horietako bat".

Hori, batik bat, negu parteko plana da; udan, batzuetan, hondartzarako bidea ere hartzen du domeketan. Kirola ikusteko gustatzen zaio Izarori: "Kirolzale pasiboa naiz. Futbolaz gain, inguruan bizikleta karreraren bat tokatzen bada ere joan izan naiz".

Betiko lagunekin planak egin zalea ere bada Izaro: "Lagunak garrantzitsuak dira, eta eurak bakailao edo *techno* musika ipintzen duten tabernetara joaten badira, musikari kasurik egin gabe lagunekin egoteko aprobetxatzen dut".

### **"Hilabete behin gutxienez bi film ikusteko proposamena egin diot nire buruari"**

Musikak Izaro Aperribairen aisialdiaren erdia betetzen du gutxi gorabehera, eta beste erdia kirolak eta zinemak; noizean behin museoren bat bisitatzeko tartea ere izaten du.

"Zinemazalea naiz, baina asteburuetan ez dut gogoko zinemara joatea, jende asko egoten delako. Beraz, aste barruko egunak aprobetxatzen ditut. Gainera, aurtun nire buruari egin didan proposamena da hilabete behin gutxienez bi aldiz zinemara joatea eta, oraingoz, betetzen ari naiz. Egun batean bi film ikusi nituen, pentsa. Hainbeste areto ixten ari direnez, zinemak bultzada behar duela uste dut".

Ahal duenean museoren bat ikustea gustatzen zaio: "Guggenheim museora gustatzen zait urtean behin bada ere joatea; baina sarrera garestia da eta ondo pentsatu behar da joan aurretik. Arte Ederretako museoan ere erakusketak interesgarriak egiten dituzte".



astea GOITBn

Astelehena, 29



> 'Harmailatik':  
UDA-Mondra derbia  
21:15

UDA eta Mondra taldeek zapatuan jokatuak derbiaren laburpen zabala gaurko saioan. Protagonisten iritziak eta irudi ikusgarrienak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Teknopolis.  
14:15 Iragana gogoratu.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ilunpean.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Klip@.  
16:15 Bizitegia.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Sherlock Holmes.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ur eta Lur.  
18:15 Eltze beroa.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Danbaka.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
20:45 Berriak.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Telesaila.  
22:45 Berriak.  
23:15 Didjeridu.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ikusmira.  
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 30




> Kerobia taldearen kontzertua  
21:45

Kerobia taldea izan zen talde gonbidatua Danbaka lehiaketako finalean. Nafarrek *Rose Escargot* izenburuko diskoa aurkeztu zuten Elgetan.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Harmailatik.  
14:15 Erreportajea.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Didjeridu-Kaiet Laskurain.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Nonochan.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ur eta Lur.  
18:15 Eltze beroa.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Danbaka.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
20:45 Berriak.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Telesaila.  
22:45 Berriak.  
23:15 Didjeridu.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Harmailatik.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 31



> Elurra iritsi dela eta, erreportaje berezia  
21:47

Elurra izan dugu azken egunotako protagonista gure eskualdean. Han eta hemen jasotako irudi ikusgarriekin egindako erreportajea.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Danbaka.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ur eta Lur.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Sherlock Holmes.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Harmailatik.  
18:15 Iragana gogoratu.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Danbaka.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea: elurtea bailaran.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea: elurtea bailaran.  
22:15 Telesaila.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ur eta Lur.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1



> 'Berbaire': gizarte eta politika gaiak  
21:15

Larraitz Ugarte (irudian), Ainhoa Larrañaga, Juan Kruz Mendizabal eta Ander Elortondo izango dira gaurko gonbidatuak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea: elurtea bailaran.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Teknopolis.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Danbaka.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Nonochan.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Eltze beroa.  
18:15 Hasiberriak.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Bizitegia-Klip@.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Danbaka.  
22:15 Didjeridu.  
22:45 Berriak.  
23:15 Danbaka.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ilunpean.  
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 2



> Jone Goirizelaia 'Ilunpean' saioko gonbidatua  
22:15

Gaurko saioan, Ahotsak plataforman ari den Jone Goirizelaia abokatu elkarriketatuko du Oihana Elortza kazetari oñatiarrak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Danbaka.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Eltze beroa.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Didjeridu.  
16:15 Iragana gogoratu.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Sherlock Holmes.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Erreportajea: elurtea bailaran.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Danbaka.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 hitz bitan.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Real-Athletic derbia: kirol kazetarien ikuspuntua  
10:30

Atzoko euskal derbiaren gainean jarduteko, Haritz Gallastegi eta Jokin Etxebarria kirol kazetariak gonbidatuko dituzte gaurko saioa. Entzuleek ere iritzia eman ahal izango dute, 943 71 25 11 zenbakian.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegiak  
Prenetsaren errepasoa  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarrizketak  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)  
19:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra  
20:00 Danbaka saioa  
21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra


Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.  
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.  
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

gertutik



Julen Iriando  
Kazetaria

"Albisteak aurkezteko formulak topatu behar dira batzuetan"

EDU MENDIBIL > BERGARA

GOITBko aurpegiak ezagunenetakoa dugu Julen Iriando oñatiarrarena (27 urte). *Harmailatik* kirol saioan eta albistegietan ikus eta entzun dezakegu. Seigarren ikasturtea du oraingo GOITBn; aurretik, ETBn eta *Gara* egunkarian ibilitakoa da. Albistegietako edizio arduraduna da GOITBn.

Albistegietan ala kirola jorratzen gusturago?

Egia esan, urte batzuk egin ditut dagoeneko kirol kontuak jarraitzen eta gogorra egiten da, aste bukaeran hasten zarelako asteko lana gertatzen. Orain gauza berriak egiten ari naiz albistegietan, eta gustura nabil.

Debagoienak uste baino albiste gehiago ematen ditu egunean, ala?

Denetarikoa sasoiak egoten dira. Baina argi daukagu gauza bat: notiziak ez badaude, geuk bihurtu behar dugu gauza bat notizia, eta albistegietan ikusteko bezala aurkeztu, erakargarri egin. Gure asmoa ez da irudiz lagundutako egunkari bat egitea. Informatiboki oso aberatsa ez izan arren, zenbaitetan badago ikuspegia aldatzerik eta jendea erakartzerik, irudi ikusgarri tiraka, esate baterako. Ikus-entzuleengana iristeko formulak topatu behar dira.

Lana amaitu eta etxera iristean, zein albistegitara jotzen duzu?

Informatzeko, hemengo egoeraren berri izateko, ETBko albistegietara. Baina Athleticeko edo Realeko entrenamenduak eman duena ez zait interesatzen, eta lehen esandako albistean beste ikuspegi hori jakiteko *zapping* egiten dut.

Eta albistegiez aparte, gustuko saiorik?

Ez naiz *reality* eta antzerakoen zalea. Aspaldian, *Camera café* ikusten dut, *CQC* eta *Kalaka* ere bai... eta bertsozalea izanda, *Hitzetik hortzera*, nola ez. Beti izan dugu bertsoarako zaletasuna etxean, eta zapatuan ere Donostian izan ginen, Bertso Egunean.

Kirolaz berba bakarrik ez... Kirol dezente egiten duzu, ala?

Bai, gustatzen zait. Azken hiru urteotan, bizikletan ibiltzen naiz batik bat.

asteko hitzorduak

Ospakizuna



BERGARA

> San Blas jaiak ospatuko dituzte izen bereko auzoan

Egubakoitzean hasiko dira jaiak, auzotarren afariarekin. Zapatuan, San Blas eguna, meza nagusia izango da eta umeendako dantza eta jokoak. Domekan, herri kirolen erakustaldia ere egingo du Aimar Irigoienek.

Magia saioa



ELGETA

> Anthony Blake magoak emanaldia egingo du Espaloian

Mago ezagunak ikusleak txundituko ditu otsailaren 10ean, 22:30ean, Espaloia antzokian egingo duen emanaldian. Sarrerak dagoeneko salgai daude 17 euroren truke -bazkideendako, 12 eurotan daude.

Ikuskizuna



BERGARA

> Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskitzuna joateko sarrerak

Zapatuan Aretxabaletan izan ziren Pirritx eta Porrotx, eta otsailaren 17an, Bergaran izango dira *Mari Motots* ikuskizunarekin. Sarrerak salgai daude Elkar liburu dendan eta kultura etxean. 4 euro da.

## kuskuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Forfait gabe  
ibarreko eski  
estazioetan

**E**lurra izan da aste honetako protagonista, duda barik. Hainbeste denboran elurra noiz egingo zain egon diren lagunek ez zuten, ez, alferrik galduko egun hauetako aukera!

Ibarreko mendiek ere eski estazio itxura hartu dute. Ez dago **Candanchu** edo **Formigalera** irteera egin beharrik eskiaz gozatzeko. **Aloña** inguruetan ehunka eskiatzaile ibili da egunotan. Tartean, elurrak harrapatuta, ez aurrera eta ez atzera, hainbat behor eta ardi geratu dira. Haiek, itxu-

## "Hainbat behor eta ardi elurretan ez aurrera ez atzera geratu dira Aloñako inguruetan"

raz, ez dute egungo teknologien laguntza eguraldiaren nondik norakoak aurreikusteko.

**Gorlan**, berriz, **Ertzaintzak** gaizki aparkatutako autoei isunak jartzen ibili dira. Eskiatzera irten eta isunarekin etxera! Eta zorioneko, punturik kendu ez dizutenean! Ez dakit, agian **Realarentzat** puntuak batzen ibiliko ziren. Gaitzerdi!

Futbolari helduz, **Henry Bazan** Aloña Mendiko jokalarari boliviarrak taldea utziko du jaioterriara itzultzeko. Bi urterako sinatu du, boliviako **Strongest** taldearekin.

Guretik alde egin zuen beste baten azken berria ere eman didate. **Londresen**, elgetar bat ezkondu zen zapatuan. Bertan izan ziren familiaritatekoak eta lagunak zorioneko eguna ospatzen.

## hildakoak

• **Rosi Osés Reta**. Arrasate, urtarrilaren 26an. 59 urte.

## ESKELAK

ASTELEHENKO GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 85 euro.** Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**  
**Goienkaria: astero, 5.000 etxetan.**

## asteburuko albisteak



**Txalaparta ikastaroa.** Udaleko Gazteria departamenduak antolatuta, txalaparta ikastaro trinkoa izan zen domeka arratsaldean Agorrosin Ekintza Gunean. Bergarako zortzi gazte egon ziren bertan, eta Aretxabaletako bi irakaslek txalaparta jotzeko oinarriak irakatsi zizkieten.



**Bazkari begetarianoa.** Zapatuan bazkari begetarianoa egin zuten Bergarako gaztetxean. 20 lagun inguru elkartu eta denen artean gertatu zituzten ogia, azalorea bexamelarekin eta curryarekin; arroz, espinaka eta oloz egindako hanburgesak; kalabaza krema; gatzatua eta gazta. Giro onean guztiak jan ostean, Asier Eizagirrenen eskutik Txilen egindako eskalada irudiak ikusteko aukera izan zuten.



**Erretiratuei omenaldia.** Eguenean, Arrasateko Urribarriko erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorakoendako bazkaria antolatu zuen. 40 lagun inguru elkartu ziren bazkaritan, eta adinekoenak omendu egin zituzten: Joxe Manuel Arriola eta Faustina Barquero, biak ala biak 90 urtekoak.



**Tortilla lehiaketa.** San Paulo jaien aitzakian, Uberan patata tortilla lehiaketa egin zuten zapatuan. Hamar tortilla izan ziren lehian, eta lehenengo laurak jaso zuten saria: Miren Buruagak, Mertxe Olabek, Ander Markiegik eta Joxe Agustin Aranberrik. Epaimahaikoek ez ezik, elkartera joan ziren gainontzekoek ere giro onean dastatu zituzten tortillak.


## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

## Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

**zorion agurrak**



**ZORIONAK!**

Zorion itzazu lagunak  
eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAREN bidez!  
Ekar ezazu bere  
argazkia, eta emaitza  
ezusteko ederra!



ARRASATE  
**Unai Okina**  
Urtarrilaren 26an,  
16 urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi bat.  
Aita, ama eta Naiara.



ARRASATE  
**Urko Jaso**  
Urtarrilaren 26an  
5 urte beteko ditu.  
Zorionak etxeko  
partetik.



ARRASATE  
**Jon Ayesa  
Ibaibariaga**  
Urtarrilak 30ean, urtebe-  
tetzea. Zorionak eta muxu  
handi bat, etxekoak.



ARRASATE  
**Txomin Frutos**  
Otsailaren 4an,  
4 urte. Zorionak, poto-  
to! Egun ona pasa.  
Etxeko partetik.



BERGARA  
**Ander Mujika**  
Urtarrilaren 21ean, 3  
urte. Zorionak eta muxu  
handi-handi bat!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Andoni Mujika**  
Urtarrilaren 22an,  
10 urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Josu Larrañaga**  
Urtarrilaren 28an,  
5urte. Zorionak!  
Etxekoak eta Martoko  
auzoko lagunak.



BERGARA  
**Itsaso Goenaga**  
Urtarrilaren 30ean,  
10 urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi bat!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Jone Ibarra**  
Urtarrilaren 30ean,  
6 urte. Zorionak!  
Etxekoak, bereziki  
Gorka.



BERGARA  
**June Igarza**  
Urtarrilaren 31n,  
6 urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Itziar Mujika Lopez**  
Urtarrilaren 31n, bost  
urte. Familiako partetik,  
zorionak eta muxu  
handi-handi bat.



BERGARA  
**Julen Bilbao**  
Urtarrilaren 31n,  
7 urte. Zorionak!  
Etxekoak, bereziki  
Iker eta Gaizka.



BERGARA  
**Malen Garitano**  
Otsailaren 1ean,  
2 urte. Zorionak!  
Etxekoak, bereziki  
Unax.



ARETXABALETA  
**Mikel Zumalde Etxabe**  
Urtarrilaren 27an,  
8 urte. Familiaren  
izenean, zorionak!  
Aupa Osasuna!



ARETXABALETA  
**Josu Aizpurua**  
Urtarrilaren 30ean, 6  
urte. Zorionak, pirata.  
Ondo pasatu senide eta  
lagunekin. Eñaut, Beñat,  
Alaitz, Manex, Monika  
eta beste lagun guztiak.



ARETXABALETA  
**Nikole Gonzalez**  
Urtarrilaren 31n,  
2 urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi bat,  
txiki! Etxeko guztiak.



ARETXABALETA  
**Markel Berezibar**  
Otsailaren 1ean, 11 urte.  
Zorionak eta muxu bat,  
etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Carlos Berezibar**  
Otsailaren 4an, urtebe-  
tetzea. Zorionak eta urte  
askotarako, etxeko  
partetik.



ARETXABALETA  
**Ainara Zugasti  
Santamaria**  
Otsailaren 4an, 5 urte.  
Zorionak eta muxu han-  
di bat. Etxekoak eta,  
batez ere, Maren.



ESKORIATZA  
**Maddi Gabilondo**  
Urtarrilaren 29an, urte  
bat. Zorionak eta muxu  
handi-handi bat.  
Etxekoak.



ESKORIATZA  
**Onintza Markaide**  
Urtarrilak 30ean, 4 urte.  
Zorionak eta muxu han-  
di-handi bat! Etxeko  
partetik.



ESKORIATZA  
**Gartz Gorosabel**  
Urtarrilaren 30ean, urte-  
betetzea. Zorionak eta  
urte askotarako, etxeko-  
en partetik.



ESKORIATZA  
**Flor Gallego**  
Otsailaren 1ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta muxu  
bat. Senarra eta  
seme-alabak.



OÑATI  
**Fernando Erostarbe**  
Otsailaren 4an, urtebe-  
tetzea. Zorionak eta urte  
askotarako, etxeko  
partetik.



DEBAGOIENA  
**Mikel**  
Mikel, urtebetetze egun  
zoriontsua pasa.  
Muxu handi-handi  
bat senideen partetik.

**jaiotakoak**



**Nahia Gonzalez Otxoa**  
Tres Cantos (Madril) > Abenduaren 20a.  
3,180 kg. Gurasoak: Aurora (Arrasate)  
eta Txemi (Arrasate). Argazkian,  
Nahia neba Mikelekin.



**Haizea Duandikoetxea Otxoa**  
Aretxabaleta > Urtarrilaren 13a. 3,330  
kg. Gurasoak: Edurne (Arrasate) eta  
Raul (Arrasate). Argazkian, Haizea  
gurasoekin.



**Luken Pagaldai Gomez**  
Bergara > 3,400 kg. Urtarrilaren  
21ean. Gurasoak: Lide (Bergara) eta  
Iñigo (Bergara). Argazkian, Luken  
amaren besoetan.



**Denzel Noesi Rotete**  
Arrasate > 2,800 kg. Urtarrilaren 24a.  
Gurasoak: Richard (Domikar Errepu-  
blika) eta Catrina (Dominikar Errepu-  
blika). Argazkian, haurra gurasoekin.



**Jon Laiseka Leturia**  
Arrasate > 3,706 kg. Urtarrilaren 27a.  
Gurasoak: Ainhize (Arrasate) eta  
Gorka (Arrasate). Argazkian, umea  
kuman lo.

Jose Ramon Lazkano > Bergarako bandako kidea eta zapataria

## "Bada ordua Bergaran auditorioa egiteko!"

**LEIRE KORTABARRIA > BERGARA**  
Bergarako musika bandak 175 urte ditu aurten, eta horietatik azken 51 urtean bere partaide izan da Jose Ramon Lazkano. Bi lanbide ditu, eta bietatik da ezagun herrian: bandako kide eta zapataria.

**Zenbat tresna jo izan dituzu?**  
Saxofoi txikiarekin hasi nintzen; gero, saxofoi altua, tenorea eta, azkenik, baritonoa jo ditut, unean zegoen beharren arabera.

**Zelan doaz urteurreneko ospakizunak?**  
Orain arte, ondo. Orain hurrengo, Aratusteetako kontzertua dago, eta Gasteizko banda eta, gero, Tolosakoa datoz.

**Banda asko aldatzen ikusiko zenuen 51 urtean.**  
Ni sartu nintzenean, 44 bat zeuden; poliki-poliki behera egin zuen eta 27-edo geratu ginen. Gero, kanpoko batzuk etorri ziren, musika eskola lanean hasi zen, gazteak sartu ziren... eta orain 76 gaude.  
Instrumentuak ere, lehen zegoena jo behar izaten genuen.

**Jotzeko zer gustatzen zaizu gehien?**  
Dantzatzeko musika, baila-bleak deitzen zaiona, gustura jotzen nuen. Hura laga egin zen azkenean. Orain, kontzertuak jotzen ditugu, eta horietan ere gustura nago. Jendea etortzen da gu entzutera.

**Zapata-denda ere badaukazue. Beherapenak zer moduz?**  
(Barre). Denda erdi utzita nago. Hala ere, beherapenetan baino gehiago, urte osoan etortzen da gureru jendea.

### TEST-A

**Herrria:** Bergara. **Adina:** 65 urte. **Musika ikasketak:** Lehengo Bergarako bandako zuzendariarekin, Miguel Gonzalezekin. **Zaletasunak:** Musika eta mendia. **Zerentzuten duzu gustura?** Diskoak apenas erosten ditut, baina irratia, bai, Loiola Irratia. **Mendi bat?** Denetan ibiltzen naiz. Bat esatearren, Durutik Urbia aldera buelta egitea. **Bandaren urrezko garaia?** Orain-txe dago ondo. **Irteera bat egiteko-tan, nora?** Kantabriara.

**Bota asko saldu dituzu?**  
Lehen ez dira saldu eta, orain saldu behar!  
**Katarrorik harrapatu duzu aurten?**  
Bat bai, baina oso txikia. Osasunez ondo nabil.

**Elurra gustuko duzu?**  
Bai, bai, gustatzen zait. Elurretan ibili ere, gustura ibiltzen naiz. Eskiatzen ez, baina!

**Musika entzuteko aukera nahikoa dugu Debagoienean?**  
Aukerak badaude, baina ni ez naiz herritik asko irtetzen. Bandak ere, herrira etortzen direnak entzuten ditut. Orain, banda onena Bilbokoa da; oso ona da hori.

**Auditorioa egingo dizute azkenean?**  
Ordua da egiteko! Esaten dute laster hasi behar dutela, baina ikusi egin behar.

**Bandako kide ala zapataria moduan zara ezagunago?**  
(Barre). Bizi guztian herrian nagoelako, herrikoa naizelako.




LANBIDEA Jose Ramon Lazkano, zapata-denda.

L.K.

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**Medikuarekin, dentistarekin... ohiko osasun azterketak egiten dituzu?**



**biharamuna**

Marijo Deogracias

## Atzera egiten hasita...

Izulezko zorientasun deiadarra bota zuen **Salma Hayek** aktoreak bere lagun **Pe** aktore onenaren Oscarretarako hautagai aukeratu zutenean. **Volver** filmean egiten duen lanagatik aukeratu zuten.

**Itzuli** ere **Iban Zubiaurre** itzuli zen atzo Anotara; hura baina, txistuka hartu zuten bere taldekide ohien zaleek. Neu asteburuan Antzuolara **bueltatu** berri naiz **Amaia, Edurne, Miren, Itziar** eta **Rakele**kin afaltzera eta aspaldiko kontuak gogora ekartzen, ondo baino hobeto pasatu nuen zapatu gauean. Eskerririk asko, Miren!

Gaur, berriz, **atzera** aterako dira kalera beste herritar asko,


gure herriko kirol nazioaletako bat praktikatzera: manifestazioa, alegia. **Iñaki de Juana**ren egoera salatzeke ere balio beharko luke horrek manifestazioak.

Bihar, berriz ere **volver** egingo dutenak, askoren gogora, eta gutxienen bihotzera, **Diego Armando** eta **Carlos Alonso Palate** izango dira.

Hilabete betetzen delako lehenengo sasoiatarra bueltatzeko pausoa egin genuela. Ez zen aukera ona izan, hori badakigu. Horregatik, atzera zerbaitetan saiatu beharko bagina elkarrizketan beharko luke. Horixe da gurea dena, hitza, berba, hau da, hizketan egitea.



**eguraldia**



Zerua hodei gutxirekin egongo da, bereziki egunaren lehen partean. Azken orduetan, behetxak ugaritu egingo dira.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS) Abestiaren izena | **KODEA**

**LOGOAK** (SMS 1) **KODEA**

**5767** zembakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

1,2,3,4...Real!! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic luep!! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**  
Hartu... Ansar | **ANSAR**  
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu... Miamol | **MIAMOL**  
Independenzia! | **INDEPEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprimu | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALAPA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txootx | **TXOTX**

**DEPORIZENA, OSAUNA, IZENA, ZENBAKIA**

**E ALONSO** | **KRUTXAGA**

**BILBAO, IZENA, ZENBAKIA** | **REALIZENA, ZENBAKIA**

**ETXEBERRIA** | **ABANBURU**

**ANOETA1** | **MENDI2**

**ANOETA1** | **MENDI2**

**ARCO** | **SADAR1**

**IPURUA** | **EIBARPOOL**

**BELAK** | **ZOR13** | **IKURRI3** | **POPATIK1** | **AIZKORAK** | **ADARIAK**

**ZOR11** | **ZOR14** | **KALABERA1** | **POPATIK2** | **EGUZKILORE3** | **ELORAN**

**TOPA** | **TITULUA** | **MUSKARIA** | **SATANAS** | **ARRANAK** | **IDIAK**

**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.  
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatzeke, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.  
\*Euskaltel deitu 900 94 02 00 telefonora / \*\*Vodafone deitu 123-er / \*\*\*Movistar deitu 030-ara.  
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jami gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratutako erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.